Fu egin: Haur hizkera da, haur txikiekin bakarrik erabiltzen dena: *Egin fu, kixkaltzen dago eta.* **Soplar:** Es lenguaje infantil. Sólo se utiliza con niños de corta edad: *Sopla, que está que quema.*

Gizen, gixen, zuri: *Ez jan gixena. Utzi plater bazterrean.*
El gordo de la carne: *No te comas el gordo. Déjalo a un lado.*

Gordin: *Ez dago ongi egina, ia gordina dago.* **Crudo:** *No está bien hecho, está casi crudo.*

Goseak egon, gose izan: *Ama, gose naiz!* **Estar de hambre:** *Mamá, itengo hambre!*

Goxo, koxo, ttotto: Koxo eta ttotto haur hizkera dira, haur txikiekin bakarrik erabiltzen dena: *nahi duzu goxo?* **Dulces, caramelos, golosinas, “totos”.** “Koxo” y “ttotto” son lenguaje infantil. Sólo se utiliza con niños de corta edad: *¿Quieres un toto?*

Goxoki, litxarrerri: *Hainbeste goxoki jaten baduzu, hortzak galduko zaizkizu.* **Dulces, chucherías:** *Si comes tantas chucherías se te van a caer los dientes.*

Hexur: *Hexurra trabatu zaizu? Jan mamia.* **Espina** (hueso): *¿Te has tragado una espina? Come miga.*

Ixixi: Haur-hizkera da, bakarrik haur txiki-txikiekin erabiltzen dena: *Zer da? Xopak ixixi egiten du?* **Quema, está caliente:** Es lenguaje infantil. Sólo se utiliza con niños de corta edad: *¿Qué pasa? ¿La sopa está caliente?*

Jale on, janzale. Jale txar: *Mirentxu oso jale txarra da, ez du txori batek haina jaten; Pilartxo berriz, oso jale ona da, harapatzen duen guzia irensten du. **Buen comedor, mal comedor:** Mirentxu es muy mala comedora, come menos que un pájaro. Sin embargo Pilartxo es muy buena comedora, se traga todo lo que pillá.*

Kalte egin: *Nonbait laranja zukuak kalte egin dio. **Hacer mal, sentar mal:** Parece que el zumo de naranja le ha sentado mal.*

Kokolo: *Haur-hizkera da, bakarrik haur txikiekin erabiltzen dena: Ama, eman kokolo! **Chocolate:** Es lenguaje infantil. Sólo se utiliza con niños de corta edad: Mamá, dame chocolate.*

Kontrako eztarritik, kontrako bidetik, kontrako zulotik: *Kontrako eztarritik joan zaio ura eta ez tul batean dago. **Atragantarse.** Se utiliza para decir que se ha atragantado, que se le ha ido la comida o la bebida por el otro lado: Se le ha ido el agua por el otro lado y no para de toser.*

Kraskatu: *Ez izan astakiloa eta ez kraskatu intxaur azala haginekin! **Romper.** Es onomatopéyico: No seas tan bruto y no rompas la cáscara de la nuez con los dientes.*

Lardaxkan ibili: *Honek ez du txori batek adina jaten, platerean lardaxkan ibili eta denbora pasatu bai, baina jan, ezta bat ere. **Revolver en el plato sin comer de fundamento:** Éste no come nada. Pasa el rato revolviendo en el plato, pero comer, no come nada.*

Mama: *Haur-hizkera da, bakarrik haur txiki-txikiekin erabiltzen dena: ttori, ttori mama, baina edan polliki-polliki. **Agua, líquido:** Es lenguaje infantil. Sólo se utiliza con niños de corta edad: toma, toma agua, pero bebe poco a poco.*

Mahaia jarri, paratu: *Ea, nork lagunduko dit mahaia jartzen?* **Poner la mesa:** *A ver, ¿quién me va a ayudar a poner la mesa?*

Mahaia jaso, bildu, altxatu: *Orain denok mahaia jasotzera.* **Recoger la mesa:** *Ahora todos a recoger la mesa.*

Mami: *Honek ogi azala jan eta mamia hor uzten du.* **Miga del pan. Parte carnosa de algo:** *Este se come la corteza del pan y deja la miga.*

Min, mingots, mikatz: *Edari hori minegia da haurrendako.* **Picante, amargo, agrio.** Para decir picante se utiliza “mina”, pero para amargo y agrio, se utiliza indistintamente cualquiera de las tres: *Esa bebida es demasiado agria para los niños.*

Mizkin: *Mutikoa, mutikoa, ez izan hain mizkina eta jan, ez dago besterik, e!* **Melindroso, de mal comer:** *Pero, mi chico, no seas tan melindroso y come que no hay nada más.*

Motel: *Entsalada hau motel antza dago.* **Soso:** *Esta ensalada está un tanto sosa.*

Ñan-ñan. Haur-hizkera da, haur txikiekin bakarrik erabiltzen dena: *orain ñan-ñan egin behar dugu.* **Comer.** Es lenguaje infantil. Sólo se utiliza con niños de corta edad: *ahora vamos a comer.*

Ogia busti: *Busti ogia tomatean, ikusiko duzu zein goxoa dagoen.* **Mojar pan, untar:** *Moja el pan en el tomate, verás qué rico es.*

Ogiarekin lagundu: *Lagundu ogiarekin, errazago janen duzu eta.* **Ayudarse con el pan:** *Ayúdase con el pan, comerás más fácilmente.*

On egin, ongi egin: *Har ezazu hau, ongi eginen dizu eta.*
Sentar bien: *Toma esto que te sentará bien.*

Papa. Haur-hizkera da, haur txikiekin bakarrik erabiltzen dena: *Jan papa axko-axko handi-handia egiteko.* **Pan.** Es lenguaje infantil. Sólo se utiliza con niños de corta edad: *Come mucho pan para hacerte muy, muy grande.*



Papo: Haur-hizkera da, haur txikiekin bakarrik erabiltzen dena. Berdin balio du esateko zerbait bukatu dela, edo zerbait edo norbait desagertu dela: *Papo, ez dago gehiago, den-dena jan duzu, oso ongi! Non da Idoiatxo? Idoiatxo papo, ez dago! (ezkutatu egin da).* **Se ha acabado, no hay más. No está.** Es lenguaje infantil. Sólo se utiliza con niños de corta edad. Vale tanto para decir que algo se ha acabado, como para decir que algo o alguien ya no está, se ha ido o se ha escondido: *Ya está, no hay más, te lo has comido todo muy bien! ¿Dónde está Idoiatxo? Idoiatxo se ha ido. ¡No está!*

Soinuak atera, soinua egin: *Ez atera soinurik jatera-koan!* **Hacer ruidos:** *No hagáis ruido al comer.*

Trabatu: *Ez jan dena batera, trabatu eginen zaizu eta.*
Atragantarse: *No comas todo a la vez, que te atragantarás.*

Tripa-orro: *Goseak akabatzen nago eta tripa-orroak ditut.*
Ruido de tripas: *Estoy muerto de hambre y me hacen ruido las tripas.*

Tripa zorri: *Neska honek oso goiz gosaldu du eta dagoeneko tripa zorria egin zaio:* **Hambre, sensación de hambre, gazuza:** *Esta chica ha desayunado muy temprano y ahora ya tiene hambre.*

Tripero, tripazain, tripontzia: *Ez izan hain triperoa, jan mantsoago.* **Glotón, tragón:** *No seas tan glotón y come más despacio.*

Txikitu, txiki-txiki egin, xehatu, murtxikatu: *Irentsi baino lehen txikitu ongi ahoan.* **Desmenuzar, masticar:** *Antes de tragar, másticalo bien en la boca.*

Txitxi. Haur-hizkera da, haur txikiekin bakarrik erabiltzen dena: *Gaur baxkaltzeko txitxi pattatteen.* **Carne.** Es lenguaje infantil. Sólo se utiliza con niños de corta edad: *Hoy para comer carne con patatas.*

Txurruteka, furruteka, zurruteka: *Hartu den-dena txurruteka.* **Beber a tragos, “a morro”, directamente del recipiente:** *Tómate todo a tragos.*

Xanpa-xanpa egin: *Berdura xanpa-xanpa eginen dizut zuk den-dena jateko e!* **Escarchar, aplastar la comida con el tenedor:** *Te voy a aplastar la verdura con el tenedor para que te la comas toda, ¿quieres?*

Xomorroa bota, aupatsa bota, haizea bota. “Xomorroa bota” haur-hizkera da, bakarrik haur txikiekin erabiltzen dena: *Hara, Nereak xomorroa bota du!:* **Eructar.** “Xomorroa bota” es lenguaje infantil. Sólo se utiliza con niños de corta edad: *Mira, a Nerea se le ha escapado un aire.*

Xopa, popa: Haur-hizkera da, haur txikiekin bakarrik erabiltzen dena: *Ummm! Bai goxoa dagoen xopa!* **Sopa.** Es lenguaje infantil. Sólo se utiliza con niños de corta edad: *¡Ummm, qué rica está la sopa!*

Zale: *Neskato hau ez da batere tomatezalea.* **Aficionado, que le gusta:** *A esta chica no le gusta nada el tomate.*

Zatitu, puskatu: *Zatituko didazu haragia? Baina txiki-txiki ez, e!* **Trocear, partir:** *¿Me partes la carne? Pero no me hagas trozos muy pequeños, ¡eh!*

Zipriztindu, zipriztinak bota, zirtak bota: *Ez jarri zartaginaren ondoan, zipriztinak botatzen ditu eta.* **Salpicar:** *No te pongas al lado de la sartén, que salpica.*

Zuritu: *Zurituko didazu laranja, faborez?* **Pelar:** *¿Me pelas la naranja, por favor?*

GARBITASUNA/LIMPIEZA, ASEO:

Jaso, bildu, altxatu: *Orain gela jaso behar dugu. Hasi biltzen jostailuak.* **Recoger, ordenar:** *Ahora vamos a ordenar la clase. Empezad a recoger los juguetes.*

Kaka. Haur-hizkeran zikinkeria ere esan nahi du: *Utzi hori kaka da eta!* **Caca.** En lenguaje infantil significa también porquería, algo sucio: *¡Deja eso, que es caca!*



Kakatu: *Ume hau kakatua dago, banoa garbitzera.* **Cagado:** *Este crío está cagado, voy a limpiarlo.*

Kakaztu, zerritu: *Ez dakit non ibili zaren, baina dena kakaztuak dituzu galtzak.* **Ensuciarse:** *No sé dónde has andado, pero tienes los pantalones todo sucios.*

Kandela, zintzilikario: *A zer kandelak dituzun sudurretik behera.* **Velas (mocos):** *¡Menudas velas que tienes colgando de la nariz!*

Karkaxa, flema: *Karkaxa bota ezinik dago. Gargajo, lapo, flema:* *Está que no puede echar la flema.*

Listu, ttu: *Listua botatzea oso itsusia da. Saliva, escupitajo:* *Escupir es muy feo.*

Makar: *Garbitu begiko makarrak. Legañas:* *Límpiate las legañas del ojo.*

Nahaste-borrastea, nahaspila, saltsa: *A zer nahaste-borrastea dagoen gela honetan! Revoltijo, desorden, desbarajuste:* *¡Vaya desorden hay en esta aula!*

Plixti-plaxta. Haur-hizkera da, haur txikiekin bakarrik egiten dena: *Goazen plixti-plaxta egitera! Chapoteo, figuradamente tomar un baño.* Es lenguaje infantil. Sólo se utiliza con niños de corta edad: *Vamos a bañarnos.*

Pixatu, pix egina egon: *Galtzontzilo hauek pixatuak daude. Meado:* *estos calzoncillos están meados.*

Txukun-txukun, apain-apain, pintxo-pintxo: *Zein dotore zauden argazki honetan e! Orraztu berria, arropa garbi-garbia, dena txukun-txukun. Limpio, aseado, arreglado:* *¡Qué elegante estás en la foto! Recién peinado, la ropa limpia, arreglado.*

Txukundu: *Has gaitezen gela txukuntzen, dena hankaz gora dago eta. Limpiar(se), arreglar(se), adecentar(se), ordenar:* *Vamos a ordenar la clase, que está toda patas arriba.*

Zikin-biltzaile, kaka-biltzaile: *Baina zein zikin-biltzailea zaren zu! Sucio, aficionado a ensuciarse* (literalmente recogedor de suciedad o de mierda): *Pero, ¡qué sucio eres tú!*

Zintz egin, zintzatu, mukiak ziztu: *Egin zintz mukiak ateratzeko. Sonarse la nariz:* *Suéñate la nariz para quitarte los mocos.*

Zizareak bilatzen ibili, behatza sudurrean sartu: *Zer zabiltza, zizareak bilatzen? Atera behatza sudurzulotik!* **Hurgarse la nariz:** *¿Qué haces? ¿Hurgarte la nariz? ¡Saca el dedo del agujero de la nariz!*

Zolda: *Belarriak garbitu behar dizkizut, zoldaz beteak dituzu eta.* **Mugre, suciedad:** *Te voy a limpiar las orejas, que las tienes llenas de mugre.*

IZAERA, EGOERA, JARRERA/ CARÁCTER, SITUACIÓN, COMPORTAMIENTO:

Amaren gonapean:
Amazulo hutsa da, beti amaren gonapean. **Pegado a las faldas de su madre:** *Está totalmente enmadrada, siempre pegada a las faldas de su madre.*



Amorrazio:
Haur jaioberriek oraindik hortzik ez dutenean eta amorruz bezala eskua hozkatzen dutenean erabiltzen da hitz hau: *Hara ze amorrazioa duen niniak, eskua erabat ahoan dauka.* **Rabia:** Se utiliza cuando un bebé que carece de dientes muerde la mano como con rabia: *Mira cómo muerde la mano, ¡qué rabia tiene!*

Beharrean: *Ken iezaiozu jertse hori, egosi beharrean dago eta.* **A punto de:** *Quítale ese jersey, que está a punto de cocerse.*

Beroak itota, beroak akabatzen: *Beroak itota daude.* **Morirse de calor:** *Se están muriendo de calor.*

Etorri. Esan daiteke zentzu onean, asko, ongi eta behar beza-la hitz egiten duela adierazteko; eta esan daiteke ere zentzu txarrean, gehiegi hitz egiten duela adierazteko: *Uf, nolako etorria duen ume*

honek! Ez ote da isilduko! Verborrea, rollo, fluidez de palabra.
 En sentido positivo significa fluidez verbal o elocuencia; en sentido negativo, que habla demasiado: *Uf, pero, ¡qué rollo tiene este chico! ¿No se callará un momento?*

Goxo-goxo: *Non dira umeak? Ohean goxo-goxo. A gusto, plácidamente:* *¿Dónde están los niños? En la cama, bien a gusto.*

Guri: *Zein eder eta guri dagoen nini hau! Rollizo:* *¡Qué hermoso y rollizo está este niño!*

Hitz-motela: *Ume hau hitz-motel samarra da, baina pasatuko zaio. Tartamudo:* *Esta niña es un poco tartaja, pero ya se le pasará.*

Hotzak dar-dar, hotzak akabatzen: *Hotzak dar-dar dago. Tiritar de frío, morirse de frío:* *Está tiritando de frío.*

Ipurtarina izan: *A zer nolako ipurtarina, ez zaizu geldirik egonen nolanahi, ez! Culoinquieta:* *¡Menudo culoinquieta, no se te estará quieto así como así, no!*

Kopetilun, triste: *Ai ze kopetilun etorri zaigun gaur Eneko. Triste:* *Pero, ¡qué triste ha venido hoy Eneko!*

Kozkortu: *Ze kozkortua dagoen neskato hau! Crecer, ha- cerse mozo:* *¡Qué moza está esta chica!*

Luzatu: *Nola luzatu den gure mutikoa! Crecer, estirarse:* *¡Cómo se ha estirado esta chica!*

Mingaina katuak jan: *Zer, ez duzu deus esan behar? Katuak jan dizu mingaina? Comer la lengua el gato:* *¿No vas a decir nada? ¿Te ha comido la lengua el gato?*

Motel egon: *Gaur ez dakit zer duen baina motel-motel dago. Abatido, apático, apagado:* *Hoy no sé lo que tiene, pero está muy apagado.*

Mututu, mutu gelditu, ixil-ixilik gelditu: *Mututu egin zaigu. Enmudecer, callarse: Se nos ha quedado mudo.*

Negar zotinka, negar batean, negarrez haspaituta, arrantzaka. Arrantza astoaren hotsa bada ere, umeen negar ozenak adierazteko ere erabiltzen da: *Negar batean etorri zaigu gaixoa. Llorando a lágrima viva.* Si bien “arrantza” significa rebuzno, también se utiliza para referirse al llanto sonoro de los niños: *La pobre ha venido llorando a lágrima viva.*

Sentikor, sentibera: *Errieta egin dio eta negarrez hasi zaio, oso sentikorra baita. Sensible: Le ha reñido y se ha echado a llorar ies tan sensible!*

Txitxiak, alozak: *Baina ze txitxiak dituzun hemen! Chichas: Pero, iqué chichas tienes aquí!*

Zakar: *Eskolan zakar samarra izaten da beste umeekin (edo zakar portatzen da). Brusco, desagradable, toscó, feo. De forma brusca, desagradable o tosca: En la escuela se comporta de forma bastante brusca con los otros niños.*

Zizipaza: *Neskato honek zizipaza egiten du. Ceceo: Esa chica cecea.*

HASERREAK/ENFADOS:

Arraio. Izan daiteke interjekzioa eta baita izenondoa ere: *Ze arraio egiten ari haiz? Mutiko arraioa! Hara zer egin duan orain ere, gauzonik ez! Diablos (interjección). Demonio: ¿Qué diablos estas haciendo? ¡Demonio de crío! Mira lo que has hecho ahora, inada bueno!*

Arrotz egin. Haurrak ezezkoa egiten du norbaitek besotan hartu, muxu eman edo losintxak egin nahi dizkionean: *Mirenek besotan hartu nahi izan du, baina umeak arrotz egin dio. Hacer extraños.* El bebé rechaza a quien quiere cogerlo en brazos, darle

un beso o acariciarlo: *Miren lo ha querido coger en brazos, pero el bebé le ha hecho extraños.*

Auzo-lotsa: Ama hori haurrari modu horretan errieta egiten ikustean, auzo-lotsa sentitu nuen. **Vergüenza ajena:** Cuando vi a esa madre reñir de esa manera al crío, sentí vergüenza ajena.



Aza bezala txikitu, txiki-txiki egin. Mehatxatzeko esaten da: *Idoia berriz jotzen baduzu, aza bezala txikituko zaitut! Txiki-txiki egingen zaitut. Hacer picadillo.* Se trata de una amenaza: *Como vuelvas a pegar a Idoia, te haré picadillo.*

Errabiarazi: *Ez errabiarazi neskatoa, bestela ni haserre-tuko naiz. Hacer rabiar:* *¡No hagas rabiar a la niña, que me enfadaré yo!*

Errieta egin, erriestan eman, erristatu: *Andereñoak errieta egin dizu? Zuk ere egin izanen duzu zerbait, bai. Reñir, reprender:* *¿Te ha reñido la señorita? Seguro que tú también habrás hecho algo.*

Eskua arin. Jotzeko ohitura duen haurrari esaten zaio: *Zein arina duen eskua neskato honek! Mano ligera, pegón:* *¡Qué ligera tiene la mano esta niña!*

Ez beste: *Astoak ez beste astoak! Zenbat aldiz esan behar dizuet jostailu horrekin kontuz ibiltzeko? Más que, so:* *¡Burros, más que burros! ¿Cuántas veces os tengo que decir que andéis con cuidado con ese juguete?*

Harrotuak: *Ez dakit udaberria ote den, baina haur guziak*

erabat harrotuta dabilta. Alborotados: No sé si será la primavera, pero andan todos los críos alborotados.

Hitz itsusia, zakarra: *Hitz hori oso itsusia da, ez da esan behar. Palabra fea, grosera:* *Esa palabra es muy fea. No se debe decir.*

Kasketa, kasketaldi, zaputzaldi: *Jokinek sekulako kasqueta harrapatu du gaur goizean. Rabieta, pataleta:* *Jokin esta mañana ha cogido una rabieta terrible.*

Lotsak eman, lotsamangarri izan: *Ari zara orain ere gurasoei lotsak ematen! Dar vergüenza:* *Ya estás otra vez dando vergüenza a tus padres.*

Mainak egin: *Mainak egiten hasi behar duzu orain? Lloriquear, hacer pucheros:* *¿Vas a empezar ahora a hacer pucheros?*

Marmaria. Marmarka: *Zer marmaria da hori? Zer zabilta marmarka? Refunfuño. Refunfuñar:* *¿Qué refunfuño es ese? ¿Qué andas refunfuñando?*

Matraka, okasio, sesio, iskanbila. Matraka erabil daiteke ere adjektibo bezala, norbait oso iskanbilatsua dela adierazteko: *Hemen da berriz neska matraka hori. Neskatico hori beti dabil matrakan. Alboroto, jaleo, disputa, bulla.* “Matraka se puede utilizar también como adjetivo, para decir que alguien es un o una broncas: *Ya está otra vez aquí esa broncas. Esa chica anda siempre metida en disputas.*

Mukertu, mukerra eduki/harrapatu, muker egon: *Nekatuta eta logaleak dago eta horregatik dago hain mukertua. Estar arisco, irascible:* *Está cansado y con sueño, y por eso está tan irascible.*

Purru egin, purrustada egin: *Purru egin dio eta*

zapuztu egin zaio. **Despreciar, hacer un desaire:** *Le ha hecho un desaire y se le ha enfadado.*

Purrustaka ibili: *Ez dakit zer ote duen mutiko horrek, baina goiz osoa purrustaka dabil.* **Refunfuñar:** *No sé qué tendrá ese chico, pero lleva toda la mañana refunfuñando.*

Tentatu: *Ez tentatu, ez tentatu, e! Haserretu eginen naiz eta.* **Tentar, provocar:** *No me provoques, no me provoques, ieh! Que me enfadaré.*

Ttattiko egin, tati egin. Haur-hizkera da, haur txikiekin bakarrik erabiltzen dena: *Zer egin dizu Unaitxok, ttattiko? Bai gaiztoa!* **Acto de ofrecer y no dar.** Es lenguaje infantil. Sólo se utiliza con niños de corta edad: *¿Qué te ha hecho Unaitxo? ¿Te ha ofrecido y luego no te da? ¡Qué malo!*

Txintik. Batez ere ezezko esaldietan erabiltzen da: *Orain denak ixil-ixilik e, txintik atera gabe! Ez dut txintik ere aditu nahi!* **Ni mu, ni pío:** *¡Ahora todos callando, sin decir ni mu! ¡No quiero oír ni pío!*

ZARTAKOAK/GOLPES:

Beharrik, eskerrak: *Erori eta beharrik ipurdiarekin jo duen eta ez buruarekin.* **Menos mal que..., gracias a que...:** *Menos mal que al caerse se ha dado con el trasero y no con la cabeza.*

Belarrondoko: *Belarrondoko ederra eman dio gaixoari.* **Torta en la mejilla:** *¡Menuda torta le ha dado al pobre!*

Bizkarreko, bizkarrak berotu: *Ume horien aita astapotro hutsa da, ez du inongo beldurrik umeei bizkarrak berotzeko.* **Golpe en la espalda, pegar, sacudir:** *El padre de esos niños es un burro. No tiene reparo en calentarles las espaldas.*

Borrokatu, borrokan ibili:

Norekin borrokatu zarete oraingoan?

Pelear, andar peleando: *¿Con quién os habéis peleado ahora?*

Epelak hartu/eman:


haserre-tu eta epelak eman zizkieten elkarri.

Pegar, calentar, zurrar: *Se enfadaron y bien que se zurraron.*

Estropezu egin, behaz-

topatu, muturkatu: *Lurrean zegoen egur batekin egin du estropezu.*

Tropezar: *Se ha tropezado con una leña que estaba en el suelo.*

**...ez duenean...:**

Erori eta burua hautsi ez duenean...

Estar a punto de...: *A punto ha estado de caerse y romperse la cabeza.*

Gaztako: *Irristatu eta a zer gatzakoa hartu zuen gaixoak!*

Golpe en la cabeza: *Resbaló y imenudo golpe se dio en la cabeza!*

Harramazka, marrako:

Eskolako lehenengo eguna eta harramazkaz betea etorri da. Zer ibili ote da? Arañazo, rasguño: *Primer día de clase y viene lleno de arañazos. ¿Qué habrá hecho?*

Hankaz gora (erori):

Lurrean zegoen plátano azal batekin irristatu eta hankaz gora joan da. Patas arriba (caerse): *Se ha resbalado con una cáscara de plátano que había en el suelo y se ha caído patas arriba.*

Imurtxi, zimiko, atximiska, atximur, zimurtzi:

Imurtxi bat egin behar izan diote bere onera etortzeko. Pellizco: *Le han tenido que pellizcar para que volviera en sí.*

Ipurdiko, ipurdian eman: *Bizikletatik erori eta sekulako ipurdikoa hartu du gaixoak! Ipurdian emanen, e!* **Golpe o azote en el culo:** *Se ha caído de la bici y imenudo golpe que se ha dado en el culo! ¡Que te doy en el culo, eh!*

Kaskarreko, kasketako: *Beti dabil behar ez duen toki-etara igotzen, halako batean hartu behar du kaskarreko bat!* **Golpe en la cabeza:** *Anda siempre subiéndose donde no debe. En una de estas se va a dar un golpe en la cabeza.*

Kozkor, kozkorreko: *Baina zertan ibili zara? Nolako kozkorrekoa duzun kopetan!* **Chichón:** *Pero, ¿qué has hecho? ¡Vaya chichón que tienes en la frente!*

Kunka: *Haur-hizkera da, bakarrik haur txikiekin erabiltzen dena: Gaixoa, kunka egin duzu mahaiarekin?* **Golpe en la cabeza.** *Es lenguaje infantil. Sólo se utiliza con niños de corta edad: ¡Pobrecilla! ¿Te has golpeado en la cabeza con la mesa?*

Larrutu: *Sasitara erori eta hankak eta besoak dena larrutuak etorri zaigu.* **Despellejado, pelado:** *Se ha caído a las zarzas y nos ha venido con los brazos y las piernas todo pelados.*

Mutur joka: *Mutur joka ibili dira eta begia belztuta utzi dio.* **Darse de tortas:** *Se han dado de tortas y le ha dejado un ojo morado.*

Muturrez aurrera, buruz aurrera (erori): *Gaixoak zapataren lokarria askatuta zeraman eta harekin trabatu eta muturrez aurrera joan da.* **Caerse de bruces, caerse de morros:** *El pobre tenía el cordón del zapato suelto, se ha enredado con él y se ha caído de morros.*


Punba. *Haur-hizkera da, bakarrik haur txikiekin erabiltzen dena: Hara, punba egin du mutikoak eta min hartu du eskuan.* **Caerse.** *Es lenguaje infantil. Sólo se utiliza con niños de corta edad: El chico se ha caído y se ha hecho daño en la mano.*

Talka: *Talka egin dute elkarrekin harrapaketan jostetan zebiltzala.* **Darse de bruces:** *Se han dado de bruces jugando.*

Tax-tax. Haur-hizkera da, bakarrik haur txikiekin erabiltzen da: *tax-tax emanen ipurdian e!* **Onomatopeya de dar tortas en el trasero.** Es lenguaje infantil. Sólo se utiliza con niños de corta edad: *¡Que te voy a dar en el culo, eh!*

Ubeldu, ubeldura: *Zer ibili ote da hau hankak denak ubelduaz beteak ekartzeko!* **Moradura, cardenal:** *¿Dónde habrá andado éste para traer las piernas llenas de moraduras!*

Urratu, urradura: *Txirristatik erori eta dena urratuaz beteak etorri zaigu.* **Rasguño, arañazo, herida:** *Se ha caído del tobogán y ha venido lleno de rasguños.*



Zaplazteko: *Zaplazteko bat eman dio eta negarrez dago.* **Torta:** *Le ha dado una torta y está llorando.*

GAITZAK, MINAK ETA ONDOEZAK/ ENFERMEDADES, MALESTAR:

Arkakuso, kukuso: *Arkakusoeak bisita egin digute egun hauetan, eta mutikoa eta biok hozkaz beteta gaude.* **Pulga:** *Las pulgas nos han hecho una visita estos días, y tanto el niño como yo estamos llenos de picaduras.*

Aznahia, azkura: *Zaurian aznahia baduzu ere, ez hazkatu, bestela gaiztotu egingen zaizu.* **Picor:** *Aunque tengas picor en la herida, no te rasques que se te puede infectar.*

Baba: *Babak atera zaizkio oinpean.* **Ampolla:** *Le han salido ampollas en la planta del pie.*

Barrenak nahasiak, tripak nahasiak: *Ez dago ongi, barrenak nahasi samarrak dauzka.* **Tener las tripas revueltas:** *No está bien. Tiene las tripas revueltas.*

Bartz, partz: *Begiraiozu ongi ilea, ea bartzik baduen.* **Liendre, huevo de piojo:** *Mírale el pelo, a ver si tiene liendres.*

Barizela: *Barizelak jota egon dira gelako haur gehienak.* **Varicela:** *Los críos de la clase han estado con varicela.*

Beherako, kakeri, tirriña: *Gorakoa eta beherakoa dauka.* **Descomposición, diarrea:** *Tiene vómitos y diarrea.*

Bihurritu: *Pauso txar bat eman eta txorkatila bihurritu zaio.* **Retorcerse, torcerse, hacerse un esguince:** *Ha dado un mal paso y se ha retorcido el tobillo.*

Botagale, goragale, botatzeko/oka egiteko gogoa: *Botagalea daukat.* **Náuseas, ganas de vomitar:** *Tengo náuseas.*

Botaka egin, oka egin, goitika egin, bota: *Gure neska-toak gutxi behar du botaka egiteko.* **Devolver, vomitar:** *A nuestra chiquilla le basta con poco para empezar a devolver.*

Buruko min, hagineko min, belarriko min, tripako min: *Gaixoak hagineko minez igaro du gau osoa.* **Dolor de cabeza, de muelas, de oído, de tripa:** *El pobre ha pasado la noche con dolor de muelas.*

Doministiku, usin, atixa: *Doministiku ederra bota duzu, e!* **Estornudo:** *¡Menudo estornudo, eh!*

Egonezina, ezinegona: *Egon ezina dauka egun hauetan, ez dakit zer ote duen.* **Inquietud, desasosiego:** *Estos días anda inquieta. No sé qué tendrá.*

Elgorri, gorni, gorrin: *Elgorririk ez du inork harrapatu aspaldi honetan.* **Sarampión:** *Últimamente nadie ha pillado el sarampión.*

Erre: *Hankartean dena errea dauka gaixoak. Kontuz asun horiekin, erre egiten dute eta!* **Escocer. Picar** (ortigas, guindillas...): *Tiene la entrepierna toda escocida. ¡Cuidado con esas ortigas, que pican!*

Ezongi, ondoez: *Ez zaude ongi? Ondoezik zaude?*
Malestar: *¿No te encuentras bien? ¿tienes malestar?*

Eztarria itxita: *Eztarria erabat itxita etorri zaigu gaur.*
Estar afónico, tener la garganta cerrada: *Hoy nos ha venido todo afónico.*

Eztarriko min, zintzurreko min: *Eztarriko minez dago gaixoa.* **Dolor de garganta:** *La pobre está con dolor de garganta.*

Eztul, eztulka, eztul batean: *Eztul batean igaro du gau osoa.* **Tosiendo, tosiendo sin parar:** *Ha pasado toda la noche tosiendo sin parar.*

Eztul txar, eztul zakar: *Eztul txarra daukazu, e! Mina duzu eztarrian?* **Mala tos:** *¡Tienes mala tos, eh! ¿Te duele la garganta?*

Gaiztotu, gaixtatu: *Behatzean zuen zauria gaiztotu egin zaio.* **Infectarse:** *Se le ha infectado la herida que tenía en el dedo.*

Garatxo, karitxa: *Garatxoz bete zaio eskuineko eskua.*
Verruga: *Se le ha llenado la mano derecha de verrugas.*

Gerriko min: *Euskaraz ez da esan behar giltzurrunetako mina (gazteleraz bezala), baldin eta ez bada benetan mina giltzurrunetan dugula: Aita gerriko minez dago, postura txarrean egiten baitu lan.* **Dolor de riñones.** *En euskera “dolor de cintura”, a no*

ser que a uno lo que le duelan sean realmente los riñones: *A mi padre le duelen los riñones. Como trabaja en mala postura...*

Gorako: *Jan duen horrek gorakoa eragin dio.* **Vómitos:** *Lo que ha comido le ha provocado vómitos.*

Hagina/hortza kolokan, kili-kolo: *Hagina kolokan dauka.* **Tener un diente o una muela a punto de caer:** *Tiene la muela a punto de caer.*

Handitu, hanpatu, hazi: *Arantza bat sartu zaio behatz puntan eta handitu egin zaio.* **Hincharse, inflamarse:** *Se le ha clavado una espina en la punta del dedo y se le ha hinchado.*

Hazi-min. *Hazten ari diren haur eta gazteek hezurretan sentitzen duten min txikia: Mina duela eta mina duela, hazi-minak izanen ditu!* **Crecederas.** *Son los pequeños dolores que sienten en los huesos los niños y jóvenes que están creciendo: Dice que tiene dolor. Serán crecederas.*

Hazkatu, hatz egin: *Ez hazkatu hainbeste, zauria eginen duzu eta.* **Rascar(se):** *No te rasques tanto que te harás una herida.*

Hortza kraskatu, puskatu: *Hortz bat kraskatu zaio.* **Partirse un diente:** *Se le ha partido un diente.*

Hozka: *Eltxo batek hozka egin dio besoan eta dena gorritua dauka.* **Picar un insecto:** *Le ha picado un insecto en el brazo y se le ha puesto todo rojo.*

Hotzak egon: *Ume hau hotzak dago jar iezaiozu jertse bat.* **Estar de frío:** *Este crío tiene frío, ponle un jersey.*

Hotzikara: *Gaixoa ez dago ongi, hotzikaraz dago.* **Escalofrío:** *La pobre no está bien, tiene escalofríos.*

Hozki: *Ez egin hori, hozkia ematen dit eta.* **Dentera:** *No hagas eso, que me da dentera.*

Idorreri, barrenak lehor: *Ume honek idorreria izan behar du. Hiru egun daramatza kakarik egin gabe.*

Estreñimiento: *Este niño debe de estar estreñado, lleva tres días sin hacer cacas.*

Igurtzi. *Aditza da baina baita substantiboa ere: Eman pomada hau eta igurtzi ongi erredura duen tokian.* **Frotar, fro-tamiento.** *Dale esta pomada y frótala bien en la quemadura.*

Izerdi batean, izerdi patsetan, izerditan blai, dena izerditua: *Lasterka etorri da, izerdi batean.* **Empapado en sudor:** *Ha venido corriendo, empapado en sudor.*

Katarro: *Mutiko honek aise harrapatzen du katarroa horregatik!* **Catarro:** *¡Pues este chico sí que tiene facilidad para pillar catarros!*

Koska: *Hortz palari koska bat egin dio.* **Muesca:** *Se ha hecho una muesca en la pala (diente).*

Larrutu: *Eguzkitan egon da eta bizkarra erre du, eta orain dena larrutzen ari zaio.* **Pelarse:** *Ha estado al sol y se le ha quemado la espalda y ahora se le está pelando.*

Lepoa gogortu: *Postura txarrean egin du lo eta lepoa gogortua dauka.* **Tortícolis:** *Ha dormido en mala postura y tiene tortícolis.*

Lepoko min. Bizkarreko min: *Igurtzialdi bat emanen dizut eta berehala joanen zaizu lepoko mina.* **Dolor de cuello o de hombro. Dolor de espalda:** *Te voy a dar un masaje y enseguida se te irá el dolor de cuello.*

Maingu, herren, urgun. Mainguka, herren egiten, urgunka: *Ez ibili mainguka, badakit apropos egiten duzula eta.*

Cojo. Cojeando: *No andes cojeando que ya sé que lo haces adrede.*

Marranta: *Marranta ederra dauka neskato honek. Marrantatua etorri da. Ronquera:* *Menuda ronquera tiene esta chica. Ha venido ronca.*

Orezta: *Pipi Galtzaluzek aurpegia oreztaz betea dauka. Peca:* *Pipi Calzaslargas tiene la cara llena de pecas.*

Orin: *Orin handi bat dauka bizkarrean. Lunar:* *Tiene un gran lunar en la espalda.*

Ospel: *Hotzagatik ospelak atera zaizkio belarri atzean. Sabañón:* *Tiene sabañones detrás de las orejas a causa del frío.*

Pikor: *Pikorrak atera zaizkio mingainean, eta ahoa dena minduta dauka. Grano:* *Le han salido granos en la lengua y tiene la boca toda dolorida.*

Pupu. *Haur-hizkera da, haur txikiekin bakarrik erabiltzen da: non duzu pupua, behatzean? Ekarri, eginen dizut “senda-senda” (senda senda mina, muxu putz urrina, sendatzen ez bada... Joan da Mirentxuren mina!). Pupa, daño:* *Es lenguaje infantil. Sólo se utiliza con niños de corta edad: ¿Dónde tienes pupa? ¿En el dedo? Trae, que te voy a hacer “curasana”.*

Sabeloi: *Sabeloia kentzeko haurrari bustialdi bat eman behar zaio, eta gero igurtzi gabe lehortu. Costra láctea:* *Para quitar la costra láctea hay que darle al niño un remojón y después secar sin frotar.*

Sukar, kalentura: *Termometroa jarri behar diogu, sukarrik bai ote duen. Fiebre, calentura:* *Vamos a ponerle el termómetro, a ver si tiene fiebre.*

Txantxar: Otorduen ondoren beti garbitu behar dira hortzak, bestela txantxarra aterako zaizue. **Caries:** Después de las comidas hay que lavarse los dientes, si no os saldrán caries.

Txerto: Meningitisaren kontrako txertoa jarri diete eskolako ume guziei. **Vacuna:** Les han puesto a todos los niños de la escuela la vacuna contra la meningitis.

Tximitx: Hauek tximitxak dira, ez kukusoak. **Chinche:** Estos son chinches, no pulgas.

Txingurritu: Zer gertatzen zaizu? Zergatik zabilta main-guka? -Hanka txingurritu egin zait. **Dormir (la pierna, el brazo...):** ¿Qué te pasa? ¿Por qué andas cojeando? -Se me ha dormido la pierna.

Txista. Haur-hizkera da, haur txikiekin bakarrik erabiltzen dena: Jantzi arropa bestela gero hoztu eta medikutara, eta medikuak txista eginen dizu. **Inyección:** Es lenguaje infantil. Sólo se utiliza con niños de corta edad: Ponte ropa, que te enfriarás y tendrás que ir al médico y el médico te pondrá una inyección.

Txopin, zotin: Txopina kentzeko hoberena ura edatea da, poliki, baina segida-segidan. **Hipo:** Para quitar el hipo lo mejor es beber agua despacio pero de una vez.

Zakur-eztul: Ai, ze eztula daukan honek! Zakur-eztula dela esanen nuke. **Tos ferina:** ¡Ay qué mala tos tiene éste! Yo diría que es tos ferina.

Zartatu, lehertu, itzazitu: Ezpainak zartatuak ditu egiten duen hotzarekin. **Agrietarse:** Tiene los labios agrietados del frío que hace.

Zizta: Liztor batek zizta egin dio eta **eztena** barreanean utzi dio. **Picar, meter el aguijón:** Le ha picado una avispa y le ha dejado el aguijón dentro.

Zornea, materia:

Zornea du zaurian. Pus: Tiene pus en la herida.

Zorri: *Zorriak agertu dira eskolan, eta gurasoei abisua pasatu diete. Piojo:* *En la escuela han aparecido piojos y han pasado el aviso a los padres.*

EKINTZAK/ACCIONES:

Adarra jo: *Zer, adarra jotzeko gogo dago? Tomar el pelo:* *¿Qué? ¿Hay ganas de tomar el pelo?*

Apapa joan. *Haur-hizkera da, haur txikiekin bakarrik erabiltzen dena: Jantzi arropa, apapa joan behar dugu eta. Salir a la calle, ir de paseo.* *Es lenguaje infantil. Sólo se utiliza con niños de corta edad: Vístete, que nos vamos de paseo.*

Aho-soinu, aho-putz: *Hara nola egiten dituen aho-soinuk niniak! Pedorreta:* *¡Mira cómo hace pedorretas la nena!*

Aho-toles, aho-tolestxo: *Aho-toleska ari da haurra. Pucheritos de niño:* *La niña está haciendo pucheritos.*

Aho txiki. *Zerbait baieztatu edo agindu baina oso ziur egon gabe: Zuk baietz esaten duzu, baina aho txikiarekin. Con la boca pequeña.* *Afirmar o prometer algo con poca convicción: Tú dices que sí, pero con la boca pequeña.*

Ahopeka: *Xiii! Hitz egin ahopeka. Hablar bajo:* *¡Ssss! Hablad bajo.*



Beste egitekorik ez izan: *Bai, zera; ez dut beste egitekorik! No tener otra cosa que hacer: ¡Bien, no tengo otra cosa que hacer!*

Besterik ez behar, besterik ez falta: *Horixe besterik ez nuen behar! Hori bakarrik falta zitzaidan! Lo único que me faltaba: ¡Eso es lo único que me faltaba!*

Ederra/polita egin: *Ederra egin duzue oraingoan ere! ¡Buena la has hecho!: ¡Buena la has hecho ahora también!*

Eragin: *Eragin pedalei, gogor! Mover, remover, activar: ¡Dale fuerte a los pedales!*

Garaiz: *Etorri garaiz bazkaltzera, bestela deus gabe geldituko zara. Puntual: Ven puntual a comer. Si no te quedarás sin nada.*

Ilaran jarri, ilaran ibili: *Jar zaitezte denok ilaran eta eskutik helduta kalea gurutzatzeko. Ponerse en (la) fila: Poneos todos en fila y agarraos de la mano para cruzar la calle.*

Isilka, ezkutuka: *Ume honek dena isilka egiten du, ezkutuka. A la chita callando, a escondidas: Esta niña todo lo hace a la chita callando.*

Kate motxean, soka motxean: *Hau kate motxean eduki beharra dago, ez da ba potro makurra! Tenerlo bien controlado (atado con cadena corta): A este hay que tenerlo atado con cadena corta, imenudo bicho es!*

Keinu, imintzio: *Zergatik egiten dituzu keinu itsusi horiek! Gesto, mueca: ¿Por qué haces esos gestos tan feos?*

Kliskatu: *Kliskatu ezkerreko begia. Egin keinua ezkerreko begiarekin. Parpadear, pestañar, guiñar el ojo: Guña el ojo izquierdo.*

Kontra egin: *Beti kontra egiten ezin ibiliko zara ba!*
Llevar la contraria, hacer frente: *¡No podrás andar siempre llevando la contraria!*

Plisti-plasta: *Harrapatzen dituen putzu guzietan plisti-plasta ibiltzen da.* **Onomatopeya de chapoteo:** *Anda chapoteando en todos los charcos que pilla.*

Ttaka-ttaka. Haur-hizkera da, bakarrik haur txikiekin erabiltzen da: *Hara! ninia badabil ttaka-ttaka.* **Andando, caminando.** Es lenguaje infantil. Sólo se utiliza con niños de corta edad: *¡Mira! Nuestra niña ya camina.*

Ttilin-ttalan. Haur-hizkera da, haur txikiekin bakarrik erabiltzen dena: *Burdinatik zintzilikatu eta ttilin-ttalan ibiltzea gustatzen zaio.* **Onomatopeya del repique de campanas, balancear(se), columpiar(se).** Es lenguaje infantil. Sólo se utiliza con niños de corta edad: *Le gusta colgarse del hierro y andar balanceándose.*

Txalo-txalo. Haur-hizkera da, haur txikiekin bakarrik erabiltzen dena; haur-kantu eta hitz-jokoetan oso maiz agertzen da: *Ea ba, orain denak txalo-txalo.* **Onomatopeya de dar palmadas:** Es lenguaje infantil. Sólo se utiliza con niños de corta edad: *A ver, ahora todos a dar palmadas.*

Zalaparta, zarata, asotsa: *Etzazue halako zalaparta atera, kontxo!* **Ruido, bulla:** *¡No hagáis tanto ruido, hombre!*

Ziria sartu: *Ziri ederra sartu digu mukizu horrek!*
Engañar: *¡Menuda cómo nos ha engañado ese mocoso!*

JOSTAKETAK/JUEGOS:

Ama: *Nor izanen da ama? El que la para: ¿Quién la para?*

Amaka ibili. Aita eta amatan ibili: *Amaka ibiliko gara? Jugar a mamás. Jugar a papás y a mamás: ¿Jugamos a mamás?*

Artzain-joko: *Nork aritu nahi du artzain-jokoan? Tres en raya: ¿Quién quiere jugar al tres en raya?*



Harrapaketan ibili: *Ibiliko gara harrapaketan? Jugar a pillar, jugar a policías y ladrones: ¿Jugamos a pillar?*

Ikusi-makusi: *Ikusi-makusian jostatuko gara? “Veo veo”: ¿Jugamos al “veo veo”?*

Jokatu: *Nork jokatu nahi du pilota partidu bat? Jugar: ¿Quién quiere jugar un partido de pelota?*

Jostatu, jolastu. Ongi bereizi behar dira “pilotan jokatu” eta “pilotarekin jostatu”, ez baita gauza bera. Lehenengoan partidua, lehiaz ari da, bigarrenean berriz jostetaz. Beste alde batetik, bai jokatu, bai jostaturen ordez askotan aritu eta ibili aditzak esaten ditugu: *Pilotarekin jostetan ibili dira goiz osoan. Jostatuko gara harrapaketan? Jugar.* En euskera no se utiliza el mismo verbo para nombrar un juego de carácter competitivo, de uno lúdico. En el primer caso se utilizará el verbo “jokatu”, mientras que en el segundo será “jostatu” o “jolastu”. Por otra parte, tanto *jokatu* como *jolastu* serán sustituidos a menudo por *aritu* (verbo que indica acción) o

ibili (andar): Se han pasado la mañana jugando con la pelota. ¿Jugamos a policías y ladrones?

Kukutan, ezkutaketan, gordeketan ibili: *Kukutan dabilta. Jugar al escondite:* *Están jugando al escondite.*

Kulunka: *Goazen kulunkan ibiltzera libre dago eta. Balancín:* *Vamos a jugar al balancín que está libre.*

Sokasalto: *Sokasaltoan ikasi duzue? Saltar a la comba:* *¿Habéis aprendido a saltar a la comba?*

Txingoan/txingoka ibili, hanka bakarrean: *Ea nork irauten duen denbora luzeago txingoan! Andar a la pata coja:* *¡A ver quién aguanta más saltando a la pata coja!*

Txirrista: *Gaur ez gara txirristan ibiliko, bustita dago eta. Tobogán:* *No nos tiraremos por el tobogán, porque está mojado.*

Txokoka jostatu: *Nork nahi du txokoka ibili? Jugar a las cuatro esquinas:* *¿Quién quiere jugar a las cuatro esquinas?*

Zabu, kulunka: *Nekane, denbora luzea daramazu zabuan, utziozu orain Ainarari. Columpio:* *Nekane, llevas mucho tiempo en el columpio. Déjaselo ahora a Ainara.*

ANIMALIAK ETA BEREN HOTSAK/ LOS ANIMALES Y SUS VOCES:

Ahuntzek bekereke egiten dute: beeee. **Cabras:** Balido.

Apoek eta igelek korroka egiten dute: korrok-korrok-korrok, korroka ari dira. **Sapos y ranas:** Croar.

Ardiek marraka, beeka edo balaka egiten dute: beee, marraka ari dira. **Ovejas:** Balido.

Astoak arrantzak egiten ditu: anja-anja, arrantzaka ari da.
Burro: Rebuzno.


Behiek (**mumu** haur hizkeran), **oreinek eta elefanteek** marru egiten dute: marruka ari dira. **Vacas** (mumu en lenguaje infantil): Mugido. **Ciervos:** Berrido. **Elefantes:** Barrito.

Behorrek eta zaldiek irrintzia egiten dute: irrintzika ari dira. **Yeguas y caballos:** Relincho.

Beleek karraka egiten dute: kar-kar-kar, karrakaka ari dira.
Cuervos: Graznido.

Hartzek, lehoiek, tigreek, panterek... orroa egiten dute: orroka ari dira. **Osos, leones, tigres, panteras...** Rugido.

Katuek (**pitxitxi, kattu** haur hizkeran) miau edo marraka egiten dute: miauka edo marraka ari dira. Katuak uxatzeko “zapi” edo “xapi” esaten da. **Gatos** (**pitxitxi, kattu** en lenguaje infantil): Mauilido. Para espantarlos se utilizan las palabras “zapi” o “xapi”.



Oilarrak kukurruku egiten du: kukurrukuka ari da. **Gallos:** Quiquiriquí.

Oiloek kakaraka edo kakara egiten dute: kakaraka ari dira. **Gallinas:** Cacareo.

Otsoek eta txakurrek ulu egiten dute: uluka ari dira. **Lobos y perros:** Aullido.

Txakurrak zaunka egiten du: zaun-zaun, txau-txau, au-au, zaunka ari da. **Perros:** Ladrido.

Txerriek eta basurdeek murruxka, kurrin edo kurrinka egiten dute: kurrin-kurrin, kurrinka ari dira. **Cerdos y jabalíes:** Gruñido.

Txoriek txio-txio egiten dute, txio-txioka ari dira. **Pájaros:** Trino.

HAURREN MUNDUKO HIZTEGI TXIKIA

Gaztelania - Euskara

PEQUEÑO DICCIONARIO DEL ENTORNO INFANTIL

Castellano - Euskera



A gatas: Lau hankatan, katamarraukan (jarrerak)

A horcajadas: Hanka-lepotan (jarrerak). Arrekonkon, arretxiko, hankalatraba, astotan/zalditan ibili (jarrerak)

A la pata coja: Txingoan, txingoka (jarrerak)

A punto de: Beharrean (izaera, egoera, jarrera)

Abatido: Motel egon (izaera, egoera, jarrera)

Abrazo: Besarkada (losintxak)

Abuela: Amona, amatxi, amiña (pertsonak)

Abuelo: Aitona, aitatxi, attona (pertsonak)

Acabar, se ha acabado: Papo (jana)

Acariciar: Axo-axo egin (losintxak). Losintxa, laztana, fereka (losintxak)

Adecantar: Txukundu (garbitasuna)

Afónico: Eztarria itxita (gaitzak, minak eta ondoezak)

Agrietarse: Zartatu

Agrio: Min, mingots, mikatz (jana)

Agua: Mama (jana)

Aguiño: Sudurluze. Sudurmotx. Sudur-okor, sudur gako (gorputz atalak, sudurra)

Ahijado: Besoetakoa (pertsonak)

Al revés: Atzekoz aurrera, barrenekoz kanpora, alderantziz (jantzia)

Alborotados: Harrotuak (haserreak)

Amargo: Min, mingots, mikatz (jana)

Amor: Laztan (deitzeko moduak, maitasunezkoak). Matte, maite (deitzeko moduak, maitasunezkoak)

Ampolla: Baba (gaitzak, minak eta ondoezak)

Andando: Ttaka-ttaka (ekintzak)

Antebrazo: Besaurre (gorputz atalak, besoa)

Anular: Behatz, eri, atzamar. Alfer (gorputz atalak, hatzak)

Apático: Motel (izaera, egoera, jarrera)

Arañazo: Harramazka, marrako (zartakoa)

Arisco: Mukerra eduki, muker egon (haserreak)

Arreglarse: Txukundu (garbitasuna)

Atragantar: Kontrako eztarritik, kontrako bidetik, kontrako zulotik (jana). Trabatu (jana)

Aullido: Otsoek eta txakurrek ulu (animaliak eta bere hotsak)

Azote en el culo: Ipurdiko, ipurdian eman (zartakoak)

Baboso: Lerdezu (deitzeko moduak, haserrezkoak)

Balancear: Kulunkatu (ekintzak)
Balancín: Kulunka (jostaketak)
Balido: Ahuntzek bekereke (animaliak eta beren hotsak). Ardiek beeka, marraka edo balaka (animaliak eta beren hotsak)
Bandido: Bandido (deitzeko moduak, txantxa moduzkoak)
Baño: Plixti-plaxta (garbitasuna)
Barbilla: Kokotz, kokotx, okotz (gorputz atalak, kokotsa)
Barrito: Elefanteek marru egiten dute (animaliak eta beren hotsak)
Bebé: Hankagorri (deitzeko moduak, txantxa modukoak). Jaioberri (deitzeko moduak, deskriptiboak)
Beber a tragos: Txurruteka, furruteka, zurruteka (jana)
Bello: Eder (deitzeko moduak, maitasunezkoak)
Berrido: Oreinek marru egiten dute (animaliak eta beren hotsak)
Beso: Pa (losintzak)
Besucón: Musulari, musumerke (gorputz atalak, musua)
Boca: Aho (gorputz atalak)
Boca abajo: Ahuspez, ahoz behera (gorputz atalak)
Boca arriba: Ahoz gora (gorputz atalak)
Boca pequeña, con la boca pequeña: Aho txiki (ekintzak)
Bocazas: Aho handi (gorputz atalak, ahoa)
Bonito: Eder, polittena (deitzeko moduak; maitasunezkoak)
Borrico: Astakilo, astotxo (deitzeko moduak, haserrezkoak)
Bostezar: Aho zabalka egon, aharrausika egon (loa)
Brazo: Beso (gorputz atalak)
Bruces, caerse de bruces: Muturrez aurrera, buruz aurrera (zar-takoak)
Brusco: Zakar (deitzeko moduak, haserrezkoak)
Bruto: Kaskailu (deitzeko moduak, haserrezkoak). Ahariko (deitzeko moduak, txantxa modukoak)
Buen comedor: Jale ona (jana)
¡Buena la has hecho!: Ederra/polita egin (ekintzak)
Bueno: Txintxo (deitzeko moduak, deskriptiboak)
Bulla: Zalaparta, zarata, asots (ekintzak)
Burro: Astakilo, astotxo. Asto (deitzeko moduak, haserrezkoak)
Cabello: Kalpar (gorputz atalak, ilea)
Cabeza: Gazta. Gaztaundi, buruaundi. Kaskoa (gorputz atalak, burua)
Cabeza abajo: Buruz behera (jarrerak)
Caballo: Zaldi (animaliak eta beren hotsak)

Cabra: Ahuntz (animaliak eta beren hotsak)
Cacareo: Kakaraka (animaliak eta beren hotsak, oiloek)
Cadera: Aldaka (gorputz atalak, soina)
Caer: Punba (zartakoak)
Cagoncete: Kakazu (deitzeko moduak, txantxa modukoak)
Calor, morirse de calor: Itota, akabatzen (izaera, egoera, jarrera)
Calzado: Oinetako, zapata, xapata, papata (jantzia)
Cama (ir a la cama): Zaldi zuriaren gainera joan (loa)
Caminar: Ttaka-ttaka (ekintzak)
Cano: Kaskagorri. Kaskazuri (gorputz atalak, ilea)
Caprichoso: Kasketoso, mainontzi, mainoso (deitzeko moduak; haserrezkoak)
Cara: Musu (gorputz atalak)
Carasucia: Mutturxikin (deitzeko moduak, maitasunezkoak)
Caramelos: Goxo, koxo, ttotto (jana)
Caricia: Losintxa, laztana, fereka (losintxak)
Caries: Txantxar (gaitzak, minak eta ondoezak)
Cariño: Matte, maite, izar, laztan (deitzeko moduak, maitasunezkoak)
Carne: Txitxi (jana)
Catarro: Katarro (gaitzak, minak eta ondoezak)
Ceceo: Zizipaza (izaera, egoera, jarrera)
Ceja: Bekain (gorputz atalak, begiak)
Chapoteo: Plisti-plasta (ekintzak)
Charlatán: Talaka (deitzeko moduak, haserrezkoak)
Chato: Sudurluze. Sudurmotx (gorputz atalak, sudurra)
Chaval: Kozkor (deitzeko moduak, deskriptiboak)
Chica: Neskato, neskatiko (deitzeko moduak, maitasunezkoak).
Kozkorra (deitzeko moduak, deskriptiboak)
Chicarrón: Puska (deitzeko moduak, deskriptiboak)
Chichas: Txitxi (izaera, egoera, jarrera)
Chico: Muttiko (deitzeko moduak, maitasunezkoak). Kozkorra (deitzeko moduak, deskriptiboak)
Chinche: Tximitx (gaitzak, minak eta ondoezak)
Chinchón: Kozkor, kozkorreko (zartakoak)
Chiquilla: Neskato, neskatiko (deitzeko moduak, maitasunezkoak)
Chiquillo: Muttiko (deitzeko moduak, maitasunezkoak)
Choco: Pottotta, alu (gorputz atalak, soina)
Chocolate: Kokolo (jana)

- Chucherías:** Goxokiak, litxarrería (jana)
- Ciervo:** Orein (animaliak eta beren hotsak)
- Cintura:** Gerri (gorputz atalak, soina)
- Coco:** Mamu, momo (loa)
- Codo:** Besaburu. Besape, besondo. Okondo. Besaurre (gorputz atalak, besoa)
- Coger en brazos:** Aupa, aupetan, besotan (jarrerak)
- Cojo:** Maingu, herren, urgun (gaitzak, minak eta ondoezak)
- Coleta:** Tontor, ttonttor (gorputz atalak, ilea)
- Colmillo:** Letagin (gorputz atalak, hortzak)
- Columpiar:** Kulunkatu (ekintzak)
- Columpio:** Zabu, kulunka (jostaketak)
- Comba, saltar a la comba:** Sokasalto (jostaketak)
- Comer:** Nan-ñan (jana)
- Con la boca cerrada:** Ahoa itxita (jana)
- Con la boca llena:** Ahoa beteta (jana)
- Con la espalda doblada:** Kuzkurtuta (jarrera)
- Contraria, llevar la contraria:** Kontra egin (ekintzak)
- Corazón:** Bihotz (deitzeko moduak, maitasunezkoak)
- Cordones:** Lokarri (jantzia)
- Corva:** Belaun-atze, belaun-txoko (gorputz atalak, hankak)
- Costra láctea:** Sabeloi (gaitzak, minak eta ondoezak)
- Cotorra:** Berritsu (deitzeko moduak, maitasunezkoak). Hitzontzi (deitzeko moduak, haserrezkoak). Talaka (deitzeko moduak, haserrezkoak)
- Crecederas:** Hazimin (gaitzak, minak eta ondoezak)
- Crece:** Koskortu (izaera, egoera, jarrera)
- Croar:** Apoek eta igelek korroka (animaliak eta beren hotsak)
- Crudo:** Gordin (jana)
- Cuatro esquinas, jugar a las cuatro esquinas:** Txokoka jostatu (jostaketak)
- Cuellicorto:** Lepo-fin. Lepo-luze. Lepo-motz. Lepo-zabal (gorputz atalak, lepoa)
- Cuellilargo:** Lepo-fin. Lepo-luze. Lepo-motz. Lepo-zabal (gorputz atalak, lepoa)
- Cuello:** Lepo (gorputz atalak)
- Cuello de una prenda:** Lepo (jantzia)
- Cuervo:** Bele (animaliak eta beren hotsak)
- Culoinquieto:** Ipurtarin (deitzeko moduak, deskriptiboak)

- Daño:** Pupu (gaitzak, minak eta ondoezak)
- De costado:** Alde batera, saiheska (jarrerak)
- De pié:** Zutik, ttutik, txutik (jarrerak)
- De rodillas:** Belauniko (jarrerak)
- Dedos:** Behatz, eri, atzamarrak (gorputz atalak, hatzak)
- Demonio:** Arraioa (haserreak)
- Dentera:** Hozki (gaitzak, minak eta ondoezak)
- Desagradable:** Zakar (deitzeko moduak, haserrezkoak)
- Desaire:** Purrust egin, purrustada egin (haserrezkoak)
- Desasosiego:** Egonezina, ezinegona (gaitzak, minak eta ondoezak)
- Descalzo:** Oinutsik (jantzia)
- Desmenuzar:** Txikitu, xehatu, murtxikatu (jana). Xanpa-xanpa egin (jana)
- Desnudo:** Larru gorritan, biluzik (jantzia)
- Desorden:** Nahaste-borraste, saltsa (garbitasuna)
- Despellejado:** Larrutu (zartakoak)
- Despellejar:** Larrutu (gaitzak, minak eta ondoezak)
- Desperzarse:** Besoak eta hankak luzatu, tiragaleak atera, nagiak atera (loa)
- Despreciar:** Purrust egin, purrustada egin (haserreak)
- Diablos:** Arraioa (haserreak)
- Diarrea:** Beherako, kakeri (gaitzak, minak eta ondoezak)
- Diente, caerse un diente:** Hagina/hortza kolokan, kili-kolo (gaitzak, minak eta ondoezak)
- Diente, partirse:** Hortza kraskatu, puskatu (gaitzak, minak eta ondoezak)
- Dientes:** Kika, hortx (gorputz atalak, hortzak)
- Diente de leche:** Esne-hortz, esneko hortz (gorputz atalak, hortzak)
- Disputa:** Matraka, okasio, sesio, iskanbila (haserreak)
- Dolor:** Buruko min, hagineko min, belarriko min, tripako min, eztarriko min, zintzurreko min, gerriko min, lepoko min, bizkarreko min (gaitzak, minak eta ondoezak)
- Dormir:** Lolo, momo (loa)
- Dormir bien:** Lo handia (loa)
- Dormir como un tronco:** Lo seko, lo harri bezala (lolo)
- Dormir de un tirón:** Segidan egin lo, esnatu gabe egin lo (loa)
- Dorso de la mano:** Esku-gain (gorputz atalak, eskua)
- Dulces:** Goxo, koxo, ttotto (jana). Goxoki, litxarrerri (jana)

Dulces sueños: Amets goxo (loa)
Elefante: Elefanteek (animaliak eta beren hotsak)
Enmadrado: Amazulo. Aitazulo (deitzeko moduak, deskriptiboak)
Empadrado: Amazulo. Aitazulo (deitzeko moduak, deskriptiboak)
Empeine: Oin-bizkar (gorputz atalak, oina)
En cuclillas: Kokoriko, totoriko, pikotxean (jarrerak)
Encías: Hortzoi, oi (gorputz atalak, hortzak)
Engañar: Ziria sartu (ekintzak)
Enmudecer: Mututu, mutu gelditu, ixilik gelditu (izaera, egoera, jarrerak)
Ensuciar: Kakaztu (garbitasuna)
Entrepierna: Hankarte (gorputz atalak, hankak)
Eructar: Xomorroa bota, aupatsa bota, haizea bota, korrok egin, korroskada bota (jana)
Escalofrío: Hotzikara (gaitzak, minak, ondoezak)
Escocido: Errea (gaitzak, minak, ondoezak)
Escondidas, a escondidas: Isilka, ezkutuka (ekintzak)
Escondite, jugar al escondite: Kukutan ibili, ezkutaketan jostatu, gordeketan ibili (jostaketak)
Escupitajo: Listu, ttu (garbitasuna)
Esguince: Bihurritu (gaitzak, minak eta ondoezak)
Espalda: Bizkar (gorputz atalak, bizkarra)
Espina (hueso): Hexurra (jana)
Espinilla (pierna): Hanka-hezurra (gorputz atalak, hankak)
Estar vestido solo con ...: Hutsean (jantzia)
Estirarse: Luzatu (izaera, egoera, jarrera)
Estornudo: Doministiku, usin, atixa (gaitzak, minak, ondoezak)
Estreñimiento: Idorreri, barrenak lehor (gaitzak, minak ondoezak)
Exagerado: Ahobero (gorputz atalak, ahoa)
Fantasma: Mamu, momo (loa)
Fiebre: Sukar, kalentura (gaitzak, minak, ondoezak)
Fila, ponerse en fila: Ilaran jarri (ekintzak)
Firme: Tenkor (deitzeko moduak, haserrezkoak)
Flema: Karkaixa, flema (garbitasuna)
Flequillo: Kopeta-ile (gorputz atalak, ilea)
Formal: Txintxo (deitzeko moduak, deskriptiboak)
Fosa nasal: Sudurzulo (gorputz atalak, sudurra)
Frente: Kopeta (gorputz atalak)
Frente, darse de frente: Talka (zartakoak)

Frío, tiritar de frío: Hotzak dar-dar, hotzak akabatzen (izaera, egoera, jarrera)

Frotar: Igurtzi (gaitzak, minak eta ondoezak)

Gallina: Oiloek (animaliak eta beren hotsak)

Gallo: Oilarrek (animaliak eta beren hotsak)

Garganta: Eztarri, txintxur (gorputz atalak, zintzurra). Eztarria itxita (gaitzak, minak eta ondoezak). Eztarriko min, zintzurteko min (gaitzak, minak eta ondoezak)

Gato: Katuek (animaliak eta beren hotsak)

Gesto: Keinu, imintzio (ekintzak)

Glotón: Tripero, tripazain, tripontzi (jana)

Golosinas: Goxo, koxo, ttotto (jana). Goxoki, litxarrerri (jana)

Golpe en la cabeza: Gaztako (zartakoak). Kaskarreko, kasketako (zartakoak)

Golpe en la espalda: Bizkarreko (zartakoak)

Gordo de la carne: Gixen, zuri (jana)

Grano: Pikor (gaitzak, minak eta ondoezak)

Graznido: Beleek karraka (animaliak eta beren hotsak)

Greña: Kima, txima (gorputz atalak, ilea)

Greñado: Kimazu, tximatsu (deitzeko moduak, haserrezkoak)

Grosería: Hitz itsusi, zakar (haserreak)

Grosero: Zakar (deitzeko moduak, haserrezkoak)

Gruñido: Txerriek eta basurdeek murruxka, kurrin edo kurrinka (animaliak eta beren hotsak)

Guapo: Eder (deitzeko moduak, maitasunezkoak). Polittena (deitzeko moduak, maitasunezkoak)

Guiñar: Kliskatu (ekintzak)

Gustar: Zale (jana)

Hablador: Berritsu (deitzeko moduak, maitasunezkoak). Hitzontzi (deitzeko moduak, haserrezkoak). Talaka (deitzeko moduak, haserrezkoak)

Hablar bajo: Ahopeka (ekintzak)

Hacer extraños (rechazar): Arrotz egin (haserreak)

Hacer fiestas: Festak egin (losintxak)

Hacer picadillo: Aza bezala txikitu, txiki-txiki egin (haserreak)

Hacer “pucheros”: Aho-toles, aho-tolestxoak (ekintzak). Mainak egin (haserreak)

Hacer rabiar: Errabiarazi (haserreak)

Hacer ruidos al comer: Soinuak atera (jana)

Hambre: Goseak egon, gose izan (jana). Tripa zorriak (jana)
Harto: Aspertuta, asper-asper eginda, nazkatuta (jana)
Hermoso: Eder (deitzeko moduak, maitasunezkoak)
Hincharse: Handitu, hanpatu, hazi (gaitzak, minak eta ondoezak)
Hipo: Txopin, zotin (gaitzak, minak eta ondoezak)
Hombrecillo: Kakagixon (deitzeko moduak, haserrezkoak)
Hombro: Bizkar (gorputz atalak). Besaburu (gorputz atalak, besoa)
Hurgarse la nariz: Zizareak bilatzen ibili, behatza sudurrean sartu (garbitasuna)
Índice: Sendo, bizkor, erakuslea (gorputz atalak, hatzak)
Infectar: Gaiztotu, gaixtatu (gaitzak, minak eta ondoezak)
Inflamarse: Handitu, hanpatu, hazi (gaitzak, minak eta ondoezak)
Ingle: Izter-txoko, izter-ondo (gorputz atalak, hankak)
Inquietud: Egonezina, ezonegona (gaitzak, minak eta ondoezak)
Inyección: Txista (gaitzak, minak eta ondoezak)
Irascible: Mukertu, muker egon, mukerra eduki (haserreak)
Jabalí: Basurdeek (animaliak eta beren hotsak)
Jaleo: Matraka, okasio, sesio, iskanbila (haserreak)
Jugar: Jokatu (jostaketak). Jostatu, jolastu (jostaketak)
Labios: Ezpainak (gorputz atalak)
Ladrido: Zaunka (animaliak eta beren hotsak, txakurrak)
Lapo: Karkaxa, flema (garbitasuna)
Legañas: Makar (garbitasuna)
Legañoso: Makarzu (deitzeko moduak, haserrezkoak)
León: Lehoiek (animaliak eta beren hotsak)
Liendre: Bartza (gaitzak, minak eta ondoezak)
Limpio: Txukun-txukun, apain-apain, pintxo-pintxo (garbitasuna)
Liso: Leun (gorputz atalak, ilea)
Lleno: Enpo, ok (jana)
Llorar: Negar batean, negar zotinka, arrantzaka (izaera, egoera, jarrera)
Lloriquear: Mainak egin (haserreak)
Llorón: Mainontzi, mainoso (deitzeko moduak, haserrezkoak)
Lobo: Otsoek eta txakurrek (animaliak eta beren hotsak)
¡Lo que me faltaba!: Besterik ez behar, besterik ez falta (ekintzak)
Lunar: Orin (gaitzak, minak eta ondoezak)
Madrina: Amabitxi, amautxi (pertsonak)
Maduro: Berde. Ondu. Ustel (jana)
Mal comedor: Jale ona. Jale txarra (jana)

Malestar: Ondoez, ezongi (gaitzak, minak eta ondoezak)

Mamá: Amatto (pertsonak)

Mamás, jugar a mamás: Amaka ibili, Aita eta amatan ibili (jostaketak)

Manga: Mahuka (jantzia)

Manos: Eskuak (gorputz atalak)

Masticar: Txikitu, xehatu, murtxikatu (jana)

Maullido: Katuek miau edo marraka (katuek, animaliak ete beren hotsak)

Mearse: Pixatua (garbitasuna)

Mecer: Kulunkatu (loa)

Melena: Kalpar. Kalparluze. Kalparje (gorputz atalak, ilea)

Melenudo: Kalpar. Kalparluze. Kalparje (gorputz atalak, ilea)

Melindroso: Mizkin (jana)

Menos mal: Beharrik, eskerrak (zartakoak)

Meñique: Ttikia, txikerra (gorputz atalak, hatzak, behatzak, eriak, atzamarrak)

Meón: Pixero (deitzeko moduak, txantxa modukoak)

Migas de pan: Apur, papur (jana). Mami (jana)

Mimos: Mainak (losintxak)

Mocetón: Motz (deitzeko moduak, maitasunezkoak). Puska (deitzeko moduak, deskriptiboak)

Mocos: Kandela, zintzilikario (garbitasuna)

Mocoso: Mukizu (deitzeko moduak, haserrezkoak)

Monstruo: Mamu, momo (loa). Zomorro, mozorro (loa)

Moño: Motots (gorputz atalak, ilea)

Mover: Eragin (ekintzak)

Mu, no decir ni mu: Txintik (haserreak)

Muchacha: Neska (deitzeko moduak, maitasunezkoak)

Muchacho: Mutil (deitzeko moduak, maitasunezkoak)

Mueca: Keinu, imintzio (ekintzak)

Muelas: Hagin (gorputz atalak, hortzak)

Muesca, en un diente: Koska (gaitzak, minak eta ondoezak)

Mugido: Behiek, oreinek eta elefanteek marru (animaliak eta beren hotsak)

Mugre: Zolda (garbitasuna)

Muñeca: Eskumutur (gorputz atalak, eskua)

Muñeca (juguete): Panpin, nini (jostaketak)

Muslo: Izter (gorputz atalak, hankak)

- Narigudo:** Sudurluze (gorputz atalak, sudurra)
- Nauseas:** Botagale, goragale, botatzeko gogo, oka egiteko gogo (gaitzak, minak eta ondoezak)
- Nene:** Nini (deitzeko moduak, maitasunezkoak)
- Niña:** Haur, neskato, neskatiko (deitzeko moduak, maitasunezkoak)
- Niñato:** Umegorri (deitzeko moduak, haserrezkoak)
- Niño:** Haur, mutiko, muttiko (deitzeko moduak, maitasunezkoak)
- ¡No tengo otra cosa que hacer!:** Beste egitekorik ez izan (ekin-tzak)
- Nudillos:** Behatz-koxkor (gorputz atalak, hatzak)
- Ofrecer y no dar:** Ttattiko egin, tati egin (haserreak)
- Ojeras:** Begizulo
- Ombigo:** Zilbor, txilbor (gorputz atalak, soina)
- Ordenar:** Txukundu (garbitasuna)
- Orejas:** Belarri (gorputz atalak, belarriak)
- Orejas cortas (que no habla vasco):** Belarrimotx (gorputz atalak, belarriak)
- Orejas de sopillo:** Belarri-xabal (gorputz atalak, belarriak)
- Orejudo:** Belarri-handi (gorputz atalak, belarriak)
- Oso:** Hartzek, lehoiek, tigreek, panterek... (animaliak eta beren hotsak)
- Oveja:** Ardiek (animaliak eta beren hotsak)
- Padrino:** Aitabitxi, atautxi (pertsonak)
- Pájaro:** Txoriek (animaliak eta beren hotsak)
- Paladar:** Ahosabai (gorputz atalak, ahoa)
- Pala dental:** Hagin. Letagin. Hortz-pala, aurreko hortz (gorputz atalak, hortzak)
- Palma de la mano:** Esku-azpi, ahur (gorputz atalak, eskuak)
- Palmear:** Txalo-txalo (ekintzak)
- Pan:** Papa (jana)
- Pantalones cortos:** Galtzamotz. Galtza luze (jantzia)
- Pantalones largos:** Galtzamotz. Galtza-luze (jantzia)
- Pantera:** Hartzek, lehoiek, tigreek, panterek (animaliak eta beren hotsak)
- Pantorrilla:** Aztal, hanka aztal (gorputz atalak, hankak)
- Pañal:** Pardela, pixoihal (jantzia)
- Papá:** Aitatto (pertsonak)
- Papilla:** Ahi (jana)
- Parar, el que la para:** Ama (jostaketak)

Parlanchín: Berritsu (deitzeko moduak, maitasunezkoak).
Hitzontzi (deitzeko moduak, haserrezkoak). Talaka (deitzeko moduak, haserrezkoak)
Parloteo: Talaka (deitzeko moduak, haserrezkoak)
Parpadear: Kliskatu (ekintzak)
Párpado: Betazal (begiak)
Partir: Zatitu, puskatu (jana)
Paseo, ir de paseo: Apapa joan (ekintzak)
Pata coja, andar a la pata coja: Txingoan / txingoka ibili, hanka bakarrean ibili (jostaketak)
Pataleta: Kasketa, kasketaldi, zaputzaldi (haserreak)
Patatas arriba, caerse patas arriba: Hankaz gora (zartakoak)
Peca: Orezta (gaitzak, minak eta ondoezak)
Pecho: Bular. Titi. Titiburu, titipunta (gorputz atalak, soina)
Pedorreta: Aho-putz, aho-soinu (ekintzak)
Pegada a las faldas de su madre: Amaren gonapean (izaera, egoera, jarrerak)
Pegar: Epelak hartu, epelak eman (zartakoak)
Pegón: Eskua arin (haserreak)
Pelaje: Kalpar. Kalparluze. Kalparje (gorputz atalak, ilea)
Pelar: Azala kendu (jana). Zuritu (jana)
Pelear: Borrokatu, borrokan ibili (zartakoak)
Pelicorto: Kaskamotx (gorputz atalak, ilea)
Pelirrojo: Kaskagorri (gorputz atalak, ilea)
Pellizco: Imurtxi, zimiko, atximiska, atximur, zimurtzi (zartakoak)
Pelo, tomar el pelo: Adarra jo (ekintzak)
Pelota, jugar con la pelota: Pilotarekin jostatu (jostaketak)
Pene: Zakil, txiribito, txilin (gorputz atalak, soina)
Pequeño: Ttiki (deitzeko moduak, maitasunezkoak)
Perro: Otsoek eta txakurrek (animaliak eta beren hotsak).
Txakurrak (animaliak eta beren hotsak)
Pesadilla: Ametz gaixto, amets txar (loa)
Pestaña: Betile (gorputz atalak, begiak)
Pezones: Bular. Titi. Titiburu, titipunta (gorputz atalak, soina)
Picante: Min, mingots, mikatz (jana)
Picar, un insecto: Hozka (gaitzak, minak eta ondoezak). Zizta (gaitzak, minak eta ondoezak)
Picar, las ortigas, las guindillas...: Erre (gaitzak minak eta ondoezak)

- Pícaro:** Pikaro (deitzeko moduak, txantxa modukoak)
- Picor:** Aznahia, azkura (gaitzak, minak eta ondoezak)
- Pillar, jugar a pillar:** Harrapaketan ibili (jostaketak)
- Pío, no decir ni pío:** Txintik (haserreak)
- Piojo:** Zorri (gaitzak, minak eta ondoezak)
- Pitilín:** Zakil, txiribito, txilin (gorputz atalak, soina)
- Planta del pié:** Oinazpi (gorputz atalak, oina)
- Podrido:** Berde. Ondu. Ustel (jana)
- Poner la mesa:** Mahaia jarri, mahaia paratu (jana)
- Porquería:** Kaka (garbitasuna)
- Provocar:** Tentatu (haserreak)
- Pucheritos de niño:** Aho toles, aho tolestxo (ekintzak)
- Pulga:** Arkakuso (gaitzak, minak eta ondoezak)
- Pulgar:** Behatz, eri, atzamar, potoloa (gorputz atalak, hatzak)
- Puntual:** Garaiz (ekintzak)
- Pus:** Zorne, materia (gaitzak, minak eta ondoezak)
- ¡Que lo rompas con salud!:** Zimiko berri! (jantzia)
- Quema (la comida):** Ixixi (jana)
- Quiquiriquí:** Kukurruku (animaliak eta beren hotsak, oilarrek)
- Rabiar, hacer rabiar:** Arrabiarazi (haserreak)
- Rabieta:** Kasketa, kasketaldi, zaputzaldi (haserreak)
- Rana:** Igelek (animaliak eta beren hotsak)
- Rascar(se):** Hazkatu, hatz egin (gaitzak, minak eta ondoezak)
- Rasguño:** Harramazka, marrako (zartakoak)
- Rebuzno:** Astoek arrantza (animaliak eta beren hotsak, astoek)
- Recoger:** Jaso, bildu, altxatu (garbitasuna)
- Recoger la mesa:** Mahaia jaso, bildu, altxatu (jana)
- Refunfuño:** Marmari, marmarka (haserreak)
- Regazo:** Magal (losintxak)
- Relincho:** Behorrek eta zaldiek irrintzia (animaliak eta beren hotsak)
- Reñir:** Errieta egin, erriestan eman, erriestatu (haserreak)
- Repetir la comida o la bebida:** Alkosin (jana)
- Retorcijón:** Bihurritu (gaitzak, minak eta ondoezak)
- Revoltijo:** Nahaste-borraste, saltsa (garbitasuna)
- Revolver en el plato sin comer de fundamento:** Lardaxkan ibili (jana)
- Revuelto, el pelo:** Harrotua (gorputz atalak, ilea)
- Rizo:** Kizkur (gorputz atalak, ilea)

Rodillas: Belaun (gorputz atalak, hankak)

Rollizo: Guri (izaera, egoera, jarrera). Mordoska (deitzeko moduak, deskriptiboak)

Rollo, que no calla: Etorri (izaera, egoera, jarrera)

Romper (la cáscara): Kraskatu (jana)

Roncar: Zurrunga, zurrunga egin (loa)

Ronquera: Marranta (gaitzak, minak eta ondoezak)

Rótula: Belaun-hezur, belaun-katilu (gorputz atalak, hankak)

Rugido: Hartzek, lehoiek, tigreek, panterek... orroa (animaliak eta beren hotsak)

Ruido: Zalaparta, zarata, asots (ekintzak)

Ruido de tripas: Tripa-orro (jana)

Sabañones: Ospel (gaitzak, minak eta ondoezak)

Saciar: Ase (jana). Enpo, ok (jana)

Salado: Bizi, gazi (jana)

Saliva: Listu (garbitasuna)

Salpicar: Zipriztindu, zipriztinak bota, zirtak bota (jana)

Sapo: Apoek eta igelek (animaliak eta beren hotsak)

Sarampión: Elgorri, gorni, gorrin (gaitzak, minak eta ondoezak)

Sed: Egarriak egon, egarri izan (jana)

Sensación de hambre: Tripa zorriak (jana)

Sensible: Sentikor, sentibera (izaera, egoera, jarrera)

Sentar bien: On egin, ongi egin (jana)

Sentar mal: Kalte egin (jana)

Sentarse: Takatx, apatx, apatxin (jarrerak)

Sinfundamento: Haizezu (deitzeko moduak, haserrezkoak)

Sin pegar ojo: Begiak bildu ezinik, lorik ezin eginik, loak hartzen ez duela (loa)

Sobaco: Besaburu. Besape. Besondo. Okondo. Besaurre (gorputz atalak, besoa)

Sonarse la nariz: Zintz egin, zintzatu, mukiak ziztu (garbitasuna)

Sonrosado: Musugorri (gorputz atalak, musua)

Soplar (para enfriar la comida): Fu egin (jana)

Soplillo (orejas de): Belarri-xabal (gorputz atalak, belarriak)

Soso: Motel (jana)

Sucio: Kakaztu (garbitasuna). Zoldazu (deitzeko moduak, haserrezkoak)

Sudor: Izerdi batean, izerdi patsean, izerditan blai, dena izerditua (izaera, egoera, jarrera)

Suela: Zola, zapata-zola (jantzia)

Sueño. Tener sueño: Logale, logura. Logaleak egon, logale izan (loa)

Sueño atrasado: Lo-zorrak, loa atzeratua (loa)

Sueño cambiado: Loa aldatua (loa)

Sueño, estar muerto de: Errenditu, loak akabatzen (loa)

Sueño ligero: Lo arin (loa)

Sueño profundo: Lo sakon, lo pisu, lozorro (loa)

Sufrido: Zikin-estali (jantzia)

Tabarra: Talaka (deitzeko moduak, haserrezkoak)

Talón: Orpo (gorputz atalak, oina)

Tartamudo: Hitz motel (izaera, egoera, jarrera)

Templado: Epel (jana)

Tentar: Tentatu (haserreak)

Terco: Kaskagor (deitzeko moduak, haserrezkoak). Kaskailu (deitzeko moduak, haserrezkoak). Tenkor (deitzeko moduak, haserrezkoak)

Testículo: Pottoak, kaskabiloak, barrabilak (gorputz atalak, soina)

Teta: Bular. Titi. Titiburu, titipunta (gorputz atalak, soina)

Tigre: Hartzek, lehoiek, tigreek, panterek... (animaliak eta beren hotsak)

Tobillo: Orkatil, txurmio (gorputz atalak, hankak)

Tobogán: Txirrista (jostaketak)

Torito: Xexenko (deitzeko moduak, txantxa modukoak)

Torta: Belarrondoko (zertakoak). Tas-tas, tax-tax (zertakoak). Zaplaztako (zertakoak)

Tortazos: Mutur joka (zertakoak)

Tortícolis: Lepoa gogortua (gaitzak, minak eta ondoezak)

Tos: Eztul, eztulka, eztul batean (gaitzak, minak eta ondoezak).

Eztul txarra, eztul zakarra (gaitzak, minak eta ondoezak)

Tos ferina: Txakur eztul (gaitzak, minak eta ondoezak)

Tosco: Zakarra (izaera, egoera, jarrerak)

Tozudo: Kaskailu, kaskagor (deitzeko moduak, haserrezkoak). Kasketoso (deitzeko moduak, haserrezkoak). Tenkor (deitzeko moduak, haserrezkoak)

Tragón: Tripero, tripazain, tripontzi (jana)

Traidor: Etsai (deitzeko moduak, txantxa modukoak)

Travieso: Bihurri (deitzeko moduak, deskriptiboak)

Trenza: Txirikorda (gorputz atalak, ilea)

Tres en raya: Artzain-joko (jostaketak)

Trino: Txoriek txio-txio (animaliak eta beren hotsak)

Tripa: Tripa, Sabela (gorputz atalak, soina)

Trocear: Zatitu, puskatu (jana)

Tropezar: Estropezu egin, behaztopatu (zartakoak)

Tumbarse: Etzan (jarrerak)

Uñas: Azkazalak, azazkalak (gorputz atalak)

Vaca: Behiek, oreinek eta elefanteek (animaliak eta beren hotsak)

Vacuna: Txerto (gaitzak, minak eta ondoezak)

Varicela: Barizela (gaitzak, minak eta ondoezak)

Vello: Bixarrak, bizarrak (gorputz atalak, ilea)

Veo veo, jugar al veo veo: Ikusi-makusi (jostaketak)

Verborrea: Talaka (deitzeko moduak, haserrezkoak). Etorri (izaera, egoera, jarrera)

Verde: Berde. Ondu. Ustel (jana)

Vergüenza ajena: Auzo-lotsa (haserreak)

Verruga: Garatxo, karitxa (gaitzak, minak eta ondoezak)

Ventre: Tripa, Sabel (gorputz atalak)

Voltereta: Itzulipurdi (jarrerak)

Vómito: Gorako (gaitzak, minak eta ondoezak)

Vomitar: Botaka egin, ok egin, bota (gaitzak, minak eta ondoezak)

Vomitar, tener ganas de: Botagale, goragale, botatzeko gogo, ok egiteko gogo (gaitzak, minak eta ondoezak)

Vulva: Pottotta, alu (gorputz atalak, soina)

Yegua: Behorrek (animaliak eta beren hotsak)

Yemas (de los dedos): Behatz-mami, behatz-mutur (gorputz atalak, hatzak)

Zapato: Oinetako. Zapata, xapata, papata (jantzia)

Zarpas: Atzapar (gorputz atalak, hatzak).

Zurrar: Epelak hartu / eman (zartakoak)

ESAERAK

DICHOS Y REFRANES



Esaerak

Hemen duzue haurrekin hitz egiterakoan erabil daitezkeen zenbait esaera. Gehienek badute momentu jakin bat erabiltzeko, baina erabil daitezke besterik gabe grazia egiteko eta dibertitzeko.

Dichos y refranes

Presentamos aquí una serie de dichos y refranes muy utilizados cuando se trata con niños. Muchos se dicen para responder a una situación concreta. Todos sirven como divertidos juegos de palabras.

Beti Maria goruetan behar ez den orduetan

Norbait zerbait tenorez kanpo egiten duenean

Bizente: burua tente, popan doa almirante

Norbait oso harro dabilenean, serio eta bere buruari inportantzia emanaz

Eskola-mutilak sasirik sasi, asko jan eta gutxi ikasi

Hitz-joko edo hitz-korapilo bezala erabiltzen da

Gilen, ez haiz bihar hilen

Norbait adierazteko ez dela nolanahi galduko

Gure Mariak ohiko hariak

Beti bezala dabilela adierazteko

Jakina, Maria Joakina

Zerbait jakina dela adierazteko oso modu polita eta dibertigarria

Joakin, eskolara joan eta bat ere ez jakin

Hitz-joko gisa, dibertitzeko

Joakin, zer nahi duzu jakin?

Norbait zer jakin nahi duen galdetzeko modu polita

Manex, atzo bai, gaur ez

Norbait lehena ongi egiten zuena orain egiten ez duenean.

Adibidez kaka komunean, edo beste edozer gauza

Mari Belasko, okela gutxi eta salda asko

Hitz-joko gisa, norbaiti atentzia emateko modu dibertigarria

Martina, artoa eta sardina, ongi gauza jakina

Hitz-korapilo gisa

Mikolas, joan ta jolas

Hitz-joko gisa

Mikolas, bete sabela okelaz

Hitz-joko gisa

Nahiz juju, nahiz jaja, medikuaren esana bete behar da

Hitz-joko gisa, eta baita norbaitek botikaren bat edo, hartu
behar duenean ere

Patxiku nerea, bakotxak behar du berea

Zerbait banatzerakoan

***Petronila, zaude isila. Baratzean azelga, haren ondoan
perrexila, zu egoteko isil-isila***

Hitz-joko gisa, eta norbaiti isilik egoteko esaterakoan

A zer pareta, karakola ta bareta!

A zer pareta!

Ahutzaren umea antxumea

Zerbait jakina dela adierazteko

Hamabiak, katuak jan ditu bazkariak

Hitz-jokoa, hamabiak direnean esateko

Anitz daki saguak, baina gehiago katuak

Zu azkarra izanen zara, baina ni gehiago

Astoa langan bezala, ez aurrera ez atzera

Norbait zalantzan dagoenean, erabaki ezinik

Bee! Ahuntzak adarra mehe!

Hitz-joko gisa

Negarra eta parra, astoarekin ezkondu beharra

Haurra negarrez eta barrez batera ari denean

Parra eta algara astoarekin ezkondu beharra

Haurrak barrezka eta algaraka dabiltzanean

Karramarroak umeari: okerra, zuzen hadi!

Akatsa duenak (edo okerra egin duenak) akatsa duenari
kargu hartzen dionean

Zozoak beleari: ipurbeltz!

Aurrekoa bezala

Katua kanpoan, arratoiak festa!

Irakaslea falta eta haurrak harrotzen direnean

***Kukuak egiten du maiatzean kuku, garagarrilean
gelditzen da mutu***

Urtaro honen ezaugarriak irakasteko. Hitz-joko gisa ere bai

Mari Gorri, bihar eguzki eta etzi euri

Hitz-joko gisa

Zalditik astora!

Okerretik okerrera gabiltza

Zorriak nor du laguna? Bartza jauna

Zerbait jakina dela adierazteko. Akzioen bat egin duenaren konplizea nor den adierazteko

Agur. -Ekarri lepo bete egur

Agurtzerakoan

***Hemen datoz hiru neskatila: zuringo ta gorringo eta Mari
Pantorrilla***

Hiru neskato lagunak direnean, beti elkarrekin ibiltzen direnean; edo besterik gabe, hiru neskato batera heldu direnean

Hemen hiru: Txitxi, Pitxitxi eta Kirru

Aurrekoaren antzekoa

Amen! Zu hor eta ni hemen

Hitz-joko gisa

Andrea! Nondik dago Bilbora bidea?

Hitz-jokoa

Hara bi: zu bat eta bestea ni

Hitz-jokoa

Aukeraren maukera, azkenik okerra

Deus aukeratzeko zalantzan, eta azkenean oker aukeratu

***Bat, Mattin Parrat; bi, Mattin Ipurdi; hiru, kolko bete
miru; lau, saguak jango ahal hau***

Hitz-jokoa. Zenbakiak ikasteko ere balio du

Beñat, astoaren koinat

Gelan Beñaten bat badugu, barre pixka bat egiteko

Bortz, ahoan hagin eta hortz

Hitz-korapilo gisa

***Egia, sudurraren ondoan begia, haren ondoan kopeta,
iduri duela Frantziako tronpeta***

Zerbait egia dela adierazteko. Lehenengo zatiarekin ere aski litzateke

Elur melur ez nauk hire beldur

Elurra egiten duenean

Elurra melurra banian hire beldurra

Aurrekoa bezala

Egizak, egizak euria, errotan bazegok garia ohepean zer zegok? Aitona buruzuria

Euria egiten duenean

Esku-maingu, esku-maingu: ematen duena zerura, ematen ez duena infernura!

Zerbait banatu nahi ez duenari esateko.

Esku-maingu, esku-mainge, niri ematen ez didanak kopetan zintzurre!

Aurrekoa bezala

Eskerrik asko, Mari Belasko; okela gutxi eta salda asko

Eskerrak emateko modu dibertigarria

Gero...! Hotz ez dena bero

Gero esaten duenari erantzuteko

Gero...! Xiten den eguzkiaz bero

Aurrekoa bezala

Jesus, Maria eta Jose: beti jaten eta beti gose

Beti gehiago jan nahi duenari

Hiru, kolkoa bete diru

Hitz-jokoa

Kaixo Joxe Bixente; hementxe gaude, zu jarrita eta ni tente

Norbait agurtzeko modu dibertigarria

Kaixo. Ez nago gaixo

Kaixo esanez agurtzen zaituenari erantzuteko.

Kitto: atso bat hil eta bestea itto

Zerbait bukatu dela adierazteko

Martin bonbin: errege ta sorgin, tipula ta gatza, Martin ipurdi latza (kalabaza)

Hitz-jokoa. Martin izenekoren bat balego gelan, oso aproposa

Migel: sareak bete gibel; bertze hainbertze birika, Migel ipurditik zirika

Aurrekoaren gisakoa

Nongoa haiz? –Joan eta bertakoa

Nongoa zaren galdetzen dizunari erantzuteko modu diberti
garria

Nor? –Entzuten ez duena gor

Beti “nor?”Galdetzen duenari erantzuteko

Patxi, taloa jan eta ipurdia itxi

Patxi ezenekoren bat baldin bada gelan

**Txirrintxanketan: min dut hanketan, ezkonduko naiz San
Ferminetan**

Hitz-joko gisa

Zazpi, ez gabilta gaizki

Zazpi zenbakia aipatzen dugunean

Zer? –Mee, ardi txarrak hanka mehe, hi haren lagune

Beti “zer?”Galdezka dabilenari erantzuteko

Zergatik? –zerrak haginak izateagatik

Aurrekoa bezala

Zergatik? –hargatik

Aurrekoa bezala

Zenbat? –erdiak eta beste horrenbeste

Aurrekoa bezala

Zer da? –baratzean zerba

Aurrekoa bezala

Zer da? –txerri emea

Aurrekoa bezala

Ahozabal luze, logale edo gose

Norbait aho zabalka dabilenean

Agur: bidea luze eta pausua labur

Agur esaterakoan

Agur: luze haina labur, labur haina luze, agur hankaluze

Aurrekoa bezala

Begia hestea baino luzeago du horrek (begiluze)

Jan dezakeena baino gehiago eskatzen duenari esaten zaio

Bururik ez duenak,zango

Zerbait ahaztu eta bila bueltatu behar denean

Joxe Mari mari mari, lau hanka ta bost belarri

Hitz-jokoa

Gezurak buztana labur

Gezurra erraz antzematen da. Norbaitek gezurra esaten due-

nean eta nabari zaionean

Do, re, mi Joakin ipurdiaundi, fa, sol, la ikusi zaiola.

Hitz-jokoa

Bat, bi, hirur, laur: otsoak Irunberrin gaur

Hitz-jokoa. Lehenengo zenbakiak ikasteko ere

Goazen ohatzera, lo egiten dugun probatzera

Siestako orduan edo

Gaur jai, bihar jai, etzi putz usai

Jaia dela adierazteko modu dibertigarria

Gaur hotza, bihar izotza, etzi elurra, banuen beldurra

Hotz egiten duenean

Geroa, alferraren leloa


Eginbeharrak beti geroko uzten duenari esaten zaio

Ez, ez eta ez, merezi bezain kopeta beltzez esanen dizut ezetz

Ezezko borobila.

HAUR - KANTUTEGIA

CANCIONES INFANTILES



HAUR-KANTUTEGIA

Haur munduarekin lotu dugun liburu honetan, hiztegiarekin eta esaerekin batera, kantutegi bat ere sartu nahi izan dugu, haur-kantek islatzen baitute beste deusek baino hobeki haurraren mundua eta bere hizkera.

Kantuak tradizionalak dira, folkloretik atereak, eta urteetan eta urteetan Euskal Herriko bazter guzietan eta mila bertsiotan kantatu izan dira. Ez dira, beraz, gaur-gaurkoak, eta hirietako haur-errentzat, behar bada, arrotz samarrak gerta daitezke; ez hainbeste herrietan bizi direnentzat. Gure proposamena da nahi duenak, kantu hauekin mendeetan egin den bezala, nahi bezala moldatu eta gaurkotu ditzala, zilegi da; eta bere horretan utzi nahi dituenak, berdin, egin dezala. Hauek ez dute bertsio originalik, ez dira autore batek eginak beti berdin kantatuak izateko. Hauek ahozko tradizioetik jasoak dira eta mila moldaketa izan dituzte garaien eta lekuen arabera.

Kantuak musika-tresnen laguntzarik gabe grabatu ditugu, ahots hutsez, horrela izan baitira kantatuak Euskal Herriko etxeetan belaunaldiz belaunaldi. Guk ere hori bera nahi dugu, nahi duenak ikas ditzala gustukoen dituen kantuak, eta gero kanta diezaiela bere hurrei gure gurasoek eta aiton-amonek guri kantatu zizkiguten bezala. Disko hau entzuteko baino, kantuak ikasi eta kantatzeko egin dugu.

CANCIONES INFANTILES

En este libro que nos habla del mundo infantil y su lenguaje, junto con el diccionario y el refranero, hemos querido que haya un cancionero, pues son, precisamente, las canciones infantiles el mejor reflejo de este mundo y de este lenguaje.

Las canciones de este cancionero provienen de la tradición oral que se ha transmitido durante generaciones, llegando hasta nuestros días ya con escasas fuerzas. Se trata de canciones que quizás resulten un tanto extrañas a los niños más ajenos al mundo rural. Lo que proponemos es que, quien así lo desee modele y adecúe las canciones a su entorno, como siempre se ha hecho, sin que esto suponga ningún perjuicio para la riqueza y el valor de nuestro cancionero tradicional.

Las canciones las hemos grabado sin ayuda instrumental. Así han sido cantadas durante generaciones en las casas y los pueblos de Euskal Herria. El objetivo principal de este disco es, que el que así lo desee pueda aprender estas canciones, y se las pueda cantar a sus hijos, como nuestros padres y abuelos nos las cantaron a nosotros.

KANTUEN ZERRENDA/LISTA DE CANCIONES

LO KANTAK

- Abu nina Katalina
- Atte ttunttun
- Atzo ttunttun
- Bonbolontena
- Bonbolonxeta
- Buba nina
- Haurra egizu lo ta lo
- Haurra egizu lotto lotto
- Haurra egizu lotto bat
- Haurtxo polita
- Haurtxo txikia negarrez dago
- Itsasoa laino dago
- Katalina katalina
- Lolo nere maitea
- Lotxo bat egidazu

HAUR TXIKIEKIN KANTATZEKO ETA JOSTATZEKO

- Abulun abuluna
- Amaren xango
- Arre-arre mandoko
- Arri-arri mandoko
- Bonbolon bolon
- Dingilin dango
- Eragiozu
- Lehenengotxu hori
- Talotxin talotxin
- Ttikirriki
- Ttolana polana
- Txangolo mangolo

DIBERTITZEKO KANTAK

- Adios eskerrik asko
- Aista txinkurrun txankun
- Aitak eman daut
- Aldapeko sagarraren
- Arrosa lore lore
- Asto bat ikusi dut
- Axeri dantza
- Axuri beltza
- Bart non ote nintzen ni
- Behin joan nintzen azokara
- Bi xinaurri hiru xinaurri
- Bilibilibonbolo
- Bolon bat eta bolon bi
- Dira dira
- Elurra teilatuan
- Gan nintzen baratzera
- Gure aita mendira ganda
- Gure etxeko neskakua
- Gure urdea
- Harrigola marrigola
- Haur ederra nongoa zira
- Haurrak haurrak
- Jeronimo
- Kuku bat badut
- La kongo maria kongo
- Lastozko zubia
- Lehen negarrez
- Mox-mox katuko
- Ni ez naiz zomorra
- Nora zoazte horren alairik
- Sarian zunzun
- Txakur ttipi gorritxo bat

LO KANTAK


ABU NINA KATALINA (Ariben jaso)

Abu nina, Katalina,
Gure haurrak lo (har)tzeko mina;
Abu nina Katalina,
Lokar zite tia Fermina.

Bolon bat eta bolon bi,
En Vitoria yo lo aprendí:
Buena moza neska ona
Dos huevos arraultze bi

ATTE TTUNTTUN

Atte ttunttun,
Ama ttunttun,
Alaba hori (e)re ttunttune;
Guziek ttunttunek
Izatekotan, senarra
Behar luke ttunttune.
Ez, tturrupttun,
Bai, tturrupttun;
Allin agotak
Ezkontzen (di)ttun.



ATZO TTUNTTUN

Atzo ttunttun, gaur ere ttunttun,
Beti ttunttun gaittun gu.
Gure diruak aittu (dittu)n eta
Nork nahiko gaittun gu?
Atzo ttunttun, gaur ere ttunttun,
Beti ttunttun gaittun gu.
Atzo ttunttun, gaur ere ttunttun
Beti ttunttun gaittun gu.
Zazpi librako oilo txuria
Gaur azeriak jan digu.
Atzo ttunttun, gaur ere ttunttun,
Beti ttunttun gaittun gu.

BONBOLONTENA (Arbizun jasoa)

Bonbolontena, nere lastana,
 Ez egin lorik basuan.
 azeritxuak e(r)amango zaitu
 Erbia zaralakuan. Bo!

BONBOLONXETA (Zaraitzun jasoa)

Bonbolonxeta bonbonxe,
 Loan sar zite haur hori;
 Nik emanen kokolo,
 Orai bat eta gero bi,
 Loan sar zite haur hori.

BUBA NINA

Buba, nina
 Lo(kar)tzeko mina,
 Haurra dugu ñimiño
 Loak hartzeko gaiztoño;
 Bubato, ñiñato,
 Haur ttipia lo dago.

HAURRA, EGIZU LO TA LO (Ultzaman jasoa)

Haurra, egizu lo ta lo!
 (e)main dizkizut bi kokoilo,
 orai bat eta gero bestea
 arratsaldean txokolatea.

HAURRA, EGIZU LOTTO, LOTTO (Sunbillan jasoa)

Haurra, egizu lotto, lotto
 Nik emanen gaur bi kokotto
 Lore arteko jinkoilo tsuri
 Hatzemain dizut gero nik zuri.
 Euli gereka mizkalariok
 Argitan haurzale asper ezinok
 Zeri zakioz burrun ta burrun?
 Zoazte hemendik urrun bai urrun.
 Haurra lo gozo gozoak hartu
 Dezan oro isil egon behar du;
 Amak txoil txoilik daki txintatzen,
 Txorik ere eztu lokarrarazten.

HAURRA EGIZU LOTTO BAT

Haurra egizu lotto bat
Emango dizut goxo bat
Aitak bat eta amak bi
Jaun zerukoak hamabi
Lo

HAURTXO POLITA

Haurtxo polita sehaskan dago
Zapi txuritan txit bero
Txakur haundia etorriko da
Zuk ez badezu egiten lo

Amonak dio:

Ene potxolo
Arren egin ba lo
Horregatikan
Ene potxolo
Arren egin ba lo

HAURTXO TXIKIA NEGARREZ DAGO

Haurtxo txikia negarrez dago,
Ama emaiouzu titia;
Aita gaixtua tabernan dago
Pikaro jokalaria.

Aita jokuan, ama lanian
Hauxe bai negargarria
Eskerrak zuri, lore polita
Alaitzen dezu etxia

Inoiz aitatxo, txintxotzen bada
Zeinen esker haundia
Orduantxe nik, bai ekarriko
Zapata berri txuriak

ITSASOA LAINO DAGO

Itsasoa laino dago,
Baionako barraraino.
Nik zu zaitut maiteago

Txoriek beren umeak baino.
Gure oroiz aita dago,
Lainopean gaueraino.
Nik zu zaitut maiteago
Arraitxoek ura baino.

KATALINA KATALINA
Katalina katalina
Bigia duzu urdina
Emaiozu haur honeri
Bi orduko loaren mina
Katlina katalina

LO LO NERE MAITEA
Lo lo nere maitea
Lo ni naiz zurekin
Lo lo paregabea
Nigarrik ez egin

Goizegi da munduko
Gelditzen bazira
Nigarretan urtzeko
Baduzu denbora

Lo nik zaitut higitzen
Lo lo nonbait goza
Ez duzu ezagutzen?
Amattoren boza

Etsai guzietarik
Zure begiratzeko
Bertze lanak utzirik
Egonen naiz hemen

LOTXO BAT EGIDAZU
Lotxo bat egidazu,
Neure aingerua,
Hasi gau erditikan,
Argirainokua.

HAUR TTIKI-TTIKIEKIN KANTATZEKO ETA JOSTATZEKO

ABULUN ABULUN ABULUNA (Luzaiden jaso)

Abulun, abulun, abuluna,
Hauxe duzu haur ona.
Hontaz eros nezake
Parise eta Baiona.

AMAREN XANGO

Amaren xango
Aitaren xango
Pirrin, parran, ttan ttan ttan.

ARRE, ARRE MANDOKO (Leitzan jaso)

Arre, arre mandoko
Bihar Iruñerako
Etzi Tolosarako
Handik zer ekarriko
Zapata ta gerriko
Zeinentzako, zeinentzako
Gure neskatoarentzako
(Pellorentzako, Itziarrentzako...)

ARRI, ARRI, MANDOKO (Otsagabian jaso)

Arri, arri mandoko,
Bihar Iruñerako,
etzi Zangozarako.
Handik ze ekarriko?
Erastun bat eriko,
Boneta bat buruko
Zapatiko zangoko.

BONBOLON BOLON

Bonbolon bolon eragiozu,
Laister aziko natzaizu.
Laister azi ta ondo lagundu,
Mesede izango nauzu.

DINGILIN DANGO

Dingilin-dango eragidazu,
Laster haziko naiatzu;
Baita bere, ta lastertxuago,
Besuan banarabiltzu.

ERAGIOZU ESKUTTOARI

Eragiozu eskuttoari,
Eskutto ttiki poliñoari,
Lehenik batari gero bertzeari,
Eskutto ttiki poliñoari.

LEHENENGOTXU HORI

Lenenengotxu hori
Punta behatz hori
Beste guztien artean
Lodia dek hori.

Bigarrentxu hori...
Pizkorra dek hori.

Hirugarren hori...
Luzea dek hori.

Laugarrentxu hori...
Nagia dek hori.

Bosgarrentxu hori...
Ttikia dek hori.

TALOTXIN TALOTXIN (Baztanen jaso)

Talotxin, talotxin,
Gure haurrak bortz otxin.
Zato, amatxi,
Opilla haundi batekin,
Zopaz ase gaitezin,
Guziok harekin.



TXANGOLO MANGOLO (Oskotzen jaso)

Txangolo-mangolo, gure haurra nongo?

Ona bada, itxeko; gaiztoa bada, kanpoko.

Markelaingo soroa: garia bada, betor honera,

Artoa bada, bijoa.

Txinguren-minguren, gure haurra noren?

Ona bada, amaren; gaiztoa bada, bertzeren.

Aralargo mendira

Goiztirietan, arstirietan

Eperrak agertzen dira.

TTIKIRRIKI

Ttikirriki-tikitiki

Tikirriki-tona;

Rikitiki-tikitiki

Rikitiki-tona.

TTOLANA-POLANA

Ttolana-polana

Tton-tilla-pon!

Ttolana-polana

Tton-tilla-pon!

Ttolana-polana

Tton-tilla-nipon!

Ttolana-polana

Tton-tilla-nipon!

DIBERTITZEKO KANTAK

ADIOS, ESKERRIK ASKO

Adios, eskerrik asko,

Adios, etxeak;

Hurrengo urte arte

Hemendik baguaz.

AISTA TXINKURRUN TXANKUN

Aista txinkurrun txankun
 Ez naiz eroa, ez naiz eroa,
 Sardin burua baino hobe da oiloa, hobe da oiloa.
 La larala larala la larala larala la larala larala laralaralara,
 Lara lara lalara lara lara la lara laralaralaralaralaralara.

ALDAPEKO SAGARRAREN ADARRAREN

Aldapeko sagarraren
 Adarraren puntan
 Puntaren puntan
 Txoria zegoen kantari.
 Txiruliruli, txiruliruli
 Nork dantzatuko ote du
 Soinutxo hori?
 Tziruliruli, txiruliruli
 Nork dantzatuko ote du
 Soinutxo hori?

AITAK EMAN DAUT DOTEA

Aitak eman daut dotea
 Neurea, neurea:
 Urdeño bat bere xerriekin,
 Oilo koloka bere xitoekin,
 Tipula korda heiekin. (bis)

Otsoak jan daut urdea,
 Neurea, neurea,
 Axeriak oilo koloka,
 Arratoinak tipula korda.
 Adios ere dotea! (bis)

ARROSA LORE LORE

Arrola lore lore
 Denbora denian;
 Gaztiak hankak arin
 Soinua denian.
 Tranka tranka.....



ASTO BAT IKUSI DUT

Asto bat ikusi dut hiru zangorekin,
 Madrilat gateko atso zahar batekin.
 Ai belete, belete, belete,
 Ai belete, belete, mato.

Atso bat ikusi dut asto zangorekin,
 Madrilat goateko asto zahar batekin.
 Ai belete.....

AXERI DANTZA

Axeri dantza, txibu txibulete,
 Opila jan da konkete.
 Txibu, txibu, libu, libulete, te, te, te,
 Txibu, libu, libu, libulete, te, te.

AXURI BELTZA

Axuri beltza ona dut bainan
 Xuria berriz hobe,
 Dantzan ikasi nahi duen horrek
 Nere oinetara begira.

Zertan ari haiz bakar dantzatzen
 Agertzen gorputz erdia?
 Suilun horrek argitzen badik
 Agiriko haiz guzia.

BART NON OTE NINTZEN NI (Bozaten jaso)

Bart non ote nintzen ni
 Gan nintzen Arbosera
 Danbore baten erostera,
 Danbore horrek ton-ton-ton.
 Bart non ote nintzen ni.
 Gan nintzen Arbosera
 Xulubita baten erostera,
 Xulubita horrek fri-fri-fri,
 Danbore horrek tton-tton-tton.
 Bart non ote nintzen di?
 Azkenik:

Bart non ote nintzen ni?
 Gan nintzen Arbosera
 Antxume baten eroatera:
 10, antxume hori beaka;
 9, oilo hori karaka;
 8, neskaxa horrek ajaja;
 7, atso zahar horrek marmarmar;
 6, zorotzar horrek farfaarfar;
 5, zanbonba horrek bunbunbun;
 4, atabala horrek tarrapatapa;
 3, kitarra horrek gringringrin;
 2, xulubita horrek frifrifri;
 1, danbore horrek ttonttontton.
 Bart non ote nintzen ni?

BEHIN JOAN NINTZEN AZOKARA


Behin joan nintzan azokara,
 Erosi neban txakur bat:
 Txakurrak txau txau txau
 Nik txitxi berari;
 Ekarri neban etxera.

Behin joan nintzan azokara,
 Erosi neban txori bat:
 Txoriak txio txio,
 Nik barriz negar lodi:
 Iges ein nontan basora.

Behin joan nintzan azokara,
 Erosi neban txistu bat:
 Txistuak fli fli fli,
 Txakurrak txau txau txau
 Eroan notsan amari.

BI XINAURRI HIRU XINAURRI

Bi xinaurri, hiru xinaurri
 Dantzan ari ziren,
 labe bero bero batian
 Artixo landatzen.



Kukusu jauna ere han zuten
 Egur arrailatzen;
 Ehun urteko zorri kapitain bat
 Heien garraiatzen.

Ditarian ur ekarri,
 Zatabian bero,
 Erhi ttikia bustiz, bustiz,
 Ogia orha niro.

BILI BILI BONBOLO
 Bili bili bonbolo senda lo,
 Akerra Prantzian balego,
 Astuak soinu, idiak dantza
 Ahuntzak danbolina jo.

Danbore berri berria,
 Donostiatik ekarria:
 Bazterrak ditu perla xuriaz
 Erdian urre gorria.
 Haren zintatxo hoberena da
 Abarka soka lodia.
 (Narbarten jasoa)

BOLON BAT ETA BOLON BI (Ultzaman jasoa)
 Bolon bat eta bolon bi
 Bolon putzura erori;
 Erori bazen, erori,
 Ezta geroztik ageri.

Gure haurraren haur ona!
 Balio luke Baiona,
 Baiona dirurekin baino nahiago geren haur ona.
 Bolon bolon bolona,
 Gure haurra haur ona,
 Bolon bolon bolona,
 Bolon bolon bolon bolona.

DIRA, DIRA

Dira, dira, zezenak dira,
 Buztana motza,
 Adar zorrotza...
 Harrapatzen bazaitu
 Harrapatzen bazaitu,
 Jo ta bertan hilko zaitu
 Jo ta bertan hilko zaitu!

ELURRA TEILATUAN

Elurra teilatuan
 Zakua lepuan
 Ibili beharko degu aurtengo neguan
 Rau rau rau rakataplau
 Hau dek umoria
 Utzi alde batera
 Euskaldun jendia.

GAN NINTZEN BARATZERA (Lekarozen jasoa)

Gan nintzen baratzer a tipula jorrara,
 Oina irristatuta erori lurrera:
 Tarara la ra la la ta ra ra la ra la lai
 Oina irristatuta erori lurrera.

Etorri zen barbera nerrau ikustera,
 Barberak erran zuen "oina du minbera"
 Ta ra ra la ra la lai ta ra ra la ra la lai
 Barberak erran zuen "oina du minbera"

Etorri zen maitea nigar egitera,
 Bereala senda nintzen ikusirik bera;
 Tarara laralalai, tarara laralarai,
 Bereala senda nintzen ikusirik bera.

Hau ikusi zuenean mintzo zen barbera:
 Gazteak sendatzeko deusik ez gera;
 Tarara laralalai, tarara laralarai,
 Gazteak sendatzeko deusik ez gera.

GURE AITA MENDIRA GAN DA

Gure aita mendira gan da
 Bihar artseko torriko omen da
 Opil haundi ba karriko omen daku

Handik zer karriko ote dako?
 Gasna mararakuku guratako?
 Opil haundi bat karriko omen daku

GURE ETXEKO NESKATUA

Gure etxeke neskatua
 Buruan min, ta buruan min,
 Bart arratseko tipulen saldak
 Ez diola onik egin.
 Ekarri medikua
 Beraren herrikua:
 -zer diozu zuk, Katalin?
 Ekarri medikua
 Beraren herrikua:
 -zer diozu zuk, Katalin?

HARRIGOLA, MARRIGOLA

Harrigola, marrigola, kin kuan kin
 Porta zela, porta min
 Segere, megere, kirun karun pek

HAUR EDERRA, NUNGUA ZIRA?

-Haur ederra, nungua zira?
 Haur ederra zira zu!
 -Garaxiko, xiko, xiko, xiko,
 Garaxiko nuxu ni.
 Garaxiko nuxu, nuxu, nuxu,
 Garaxiko nuxu ni.
 -Nola deitzen zira, zira, zira,
 nola deitzen zira zu?
 -Deitzen nuxu, nuxu, nuxu, nuxu,
 deitzen nuxu Roxali. (bis)

HAURRAK, HAURRAK (Betelun jaso)
Haurrak, haurrak, haurrak ederrak
Haurrak nongoak zerate?
Espainiako Don Feliperen seme-alabak gerade
Aurren gaixoa pasa liteke
Azken gaixoa preso de

JERONIMO

Jeronimo
Entzun zazu
Neskatxarekin
Ibiltzen zera zu.
Aita datorrenian nian
Ama datorrenian nian
Etzetik kanpora
Bidaliko zaitu.

KUKU BAT BADUT

Kuku bat badut kaiola batean
Nun oraino ez baitu kantatzen.
Hura hasten bada kantatzen kyrie; kyrie;
Hura hasten bada kantatzen ala maison, kyrie eleison.

LA KONGO MARIA

La Kongo Maria Kongo xibiribiri Kongo. (bis)
Bitoria, Bitoria, xibiririri Kongo. (bis)
Astoaren zaldaria, arre, mando. (bis)

LASTOZKO ZUBIA (Leitzan jaso)

Bartolok in omen du lastozko zubia
Handikan pasatzeko bera ta txerria
Pasatzen hasi eta hautsi da zubia
Bartolok hartu omen du ipurdiko haundia

LEHEN NEGARREZ

Lehen begarrez,
Orain parrez:
Soldado xaharrarekin
Ezkondu nahai ez.

MOX MOX KATUKO

Mox mox katuko
 Noiz haiz heltzeko,
 Haur edertxo honekin jostatzeko?
 Erpe zorrozko
 Hoik heretzako
 Gorde itzak, haurrak negr ez eiteko.

NI EZ NAIZ ZOMORRUA (Aranon jaso)

Ni ez naiz zomorrua,
 Izanagatik lau begi;
 Atoz, atoz honera,
 Etzazuela ehesi.
 Tranlarai, tranlarai, rai, rai.....

NORA ZOAZTE HORREN ALAIK?

Nora zoazte horren alaik?
 Aita dator, ama dator Baiona aldetik,
 Gozoz beterik.
 Nora zoazte horren ilunik?
 Aita doa, ama doa Donostiatik
 Diru gaberik.

SARIAN ZUNZUN

Sarian zunzun
 Sarian zunzun
 Sarian zunzun zena,
 Launkirinkun, launkirinkun,
 Launkirinkun lena.
 (sorgin dantza bat da hau. Haurrak erratzen edo makilen gainean
 jarrita lasterka eta saltoka ibiltzen dira hau kantatzen duten bitarte-
 an)

TTAKUR TTIPI GORRITTO BAT (Ariben jaso)

Ttakur ttipi gorritto bat

Faltatu zait neri,

Hartaz baliatzen dena

Ongi bizi bedi.

Kliskitin, klaskitin

Arrosa karabelin,

Hartaz baliatzen dena

Ongi bizi bedi.